

EUSKARAREN JARRAIPENA ETA AZPIEGITURA HANDIAK EUSKAL HERRIAN

Roberto Manjón Lozoya

Osakidetzako normalizazioko teknikaria

Helbide elektronikoa: ROBERTO.MANJONLOZOYA@osakidetza.net

1. POLITIKA ESTRUKTURALAK ETA HIZKUNTZA-POLITIKA

1.1. Azpiegiturak, lurralde antolamendua eta hizkuntza-plangintza

Noizean behin, komunikabideek hizkuntza-politikari buruzko azalpenen eta eztabaiden berri ematen digute. Honako gai hauetan jartzen dute arreta: euskararen ezagutza handitu edo gutxitu den, eskolan hizkuntza ofizialen presentziarik baden, euskararen estatusa hobetzeko zer neurri hartu den edo euskarak gizarte-funtzioak eskuratzen eta finkatzen ote dituen. Baina gutxitan heltzen diete hizkuntza-aldaketetan, alegia, hizkuntzak desplazatzeko eta ordezkatzeko prozesuetan gehien erabakitzen duten alderdiei; horiek dira, hain zuzen, kultur eta gizarte-aldaketak erabakitzen dituzten faktore nagusiak, argi baitago antolakuntza ekonomiko, politiko eta sozialak, eta horiei hertsiki loturiko sistema eta sare teknologikoen, azpiegituren eta lurralde-antolamenduak erabat baldintzatzen dutela hizkuntza-komunitatea. Faktore horiek kontuan hartzen ez dituzten hizkuntza berreskuratzeko politikak, oso serioak izan arren, ospitaleko zainketa aringarriak baino ez dira. Labur esanda: aldaketa

ekonomikoak, sozialak eta politikoak kulturaren aldaketa eragiten dute eta, beraz, baita aldaketa linguistikoa ere, edo are zuzenago, aldaketa horiek guztiak aldaketa-prozesu orokor baten alderdi desberdinak dira. Zer aldatu behar da euskara biziberritzeko? Agintariak bakarrik ez.

Askotan, ezkututzen denak garrantzi handiagoa du erakusten denak baino. Euskal administrazio publikoek hizkuntza-politika batzuk abiarazi dituzte, baina aldi berean politika estrukturalak, gure bizimodu eta garapenaren oinarri direnak, hizkuntza-politikekin batera loturarik gabe bultzatu dituzte: lurralde-antolamendua, ekonomia-, industria- eta finantza-politika, garraioa, obra publikoak, eta hirigintza- eta demografiagarapena. Horra hor hizkuntza-politiken funtsezko hutsunea, politika estrukturalak erabakitzen baitute, herritar xumearen borondateak baino askoz indar gehiagoz, gizarteak hizkuntza-erabileran nora joko duen.

Horiek horrela, botere politikoak diseinatutako hizkuntza-normalizazio planen aurretiko diagnostikoak, ordea, errealitatekin kanpo egiten dira, bestak beste, ez baitituzte azpiegitura handien hizkuntza-ondorioak aztertzen. Hizkuntza-desplazamenduari aurre egin edo alderantzikatu nahi duen politika serio batek kanpoan utz ote dezake ordezkatzeko bidean dagoen hizkuntza zein baldintzatan izan daitekeen bideragarri? Zein gizarte-eremutan irauin hala duen? Bizi-estiloak zein politikak aldatzen dituzten eta, beraz, kultura-aldaketak zein politikak sustatzen dituzten?¹ Hala, faktore horien inguruan instituzioetan utzikeria baizik ez da antzematen eta, bitartean, haien politikek lagunduta, euskal komunitateak sakabanatzen jarraitzen du, eta komunitateko gizarte-sareak ahultzen. Bien bitartean, gaztelaniak edo frantsesak euskara ordezkatzeko prozesuak aurrera dirau, eta hainbat tokitan, euskal komunitatea jada desagituratuta, bere azkenetan ageri da, estatistikak gorabehera.

Horren adibide dugu Mungia aldean eta, oro har, Urriben eskualdean euskarak duen egoera, non hirigintza-tsunamiak oraindik ere gehiago sakabanatu dituen euskaldunak. Hazten ari den hirigintza sakabanatuaren fenomenoaren aldean, patetikoak dira euskara sustatzeko gobernu- eta udal-planak. Ildo beretik, ez da alferreko lana izango gogoeta egitea gure herri eta hirietatik kanpo ugaritzen ari diren olgetako eta merkataritzako azalera handiek, hala nola MegaParkek, Arteak, Urbilek, Txingudik, Gorbeiak eta Olaberriako Carrefourrek eragin dituzten hizkuntza-ondorioei buruz, edo AHTk eta halako azpiegitura handiek bizi-estiloan, eta, horrenbestez, kulturen eta hizkuntzan eragingo dituzten inpaktuei buruz.

Azken finean, horretan datza agintaritzaren publikoaren amarru nagusia: gizabanakoari zuzentzen zaio erantzukizuna eskatzen, berak sortutako arazo nagusiak (ekologikoak, hizkuntzazkoak...) konpon ditzan, botere erabakigarri guztiek baldintza sozioestruturalak kontrako norabidean bultzatzen dituzten bitartean. Eta zer esanik ez une honetan, Lakuan Jaurlaritzaren berria dugunetik, hiztun-herri minorizatua akabatzeke ohiko estrategia erabiliz, hizkuntza-askatasunaren gezur galanta hizkuntza-

Argi baitago antolakuntza ekonomiko, politiko eta sozialak, eta horiei hertsiki loturiko sistema eta sare teknologikoen, azpiegituren eta lurralde-antolamenduak erabat baldintzatzen dutela hizkuntza-komunitatea.

*Ez da alferreko lana
izango gogoeta egitea
gure herri eta hirietatik
kanpo ugaritzen ari diren
olgetako eta
merkataritzako azalera
handiek, hala nola
MegaParkek, Arteak,
Urbilek, Txingudik,
Gorbeiak eta Olaberriako
Carrefourrek eragin
dituzten hizkuntza-
ondorioei buruz, edo
AHTk eta halako
azpiegitura handiek bizi-
estiloan, eta,
horrenbestez, kulturaren eta
hizkuntzan eragingo
dituzten inpaktuei buruz.*

politikaren ardatza izango dela aldarrikatzen denean. Horixe da, hain justu, globalizazio neoliberalaren estrategia ezagun bat: botereek nahi duten ildotik gidatzen dute mundua, baina herritarren ardura da biodibertsitateari eta norberaren hizkuntzari eustea.² Botere-sareen guneak herritarragandik zenbat eta urrunago egon, orduan eta gehiago esaten zaio herritarrari berea dela erabakia eta ardura.

Gogora dezagun agintari nazionalisten hizkuntza-politikaren ardatza gizabanakoaren kontsumoa izan dela: produktu erakargarriak eskaini behar zaizkio euskaldunari erabilerari eutsi eta euskara gehiago erabil dezan. Non eta norekin erabili behar du ordea? Herrietan gero eta taberna eta denda gutxiago, kalean gero eta hustuago, zinetokirik ez; umeak eskolatik kanpo ekitaldi arautuetan, hau da, ingelesa edo baleta ikasten, bestela etxean *play station*arekin edo urrun bizi diren ezezagunekin txateatzen; gazteak azalera handiko aisia-eskaintzaz gozatzen, erabat erdalduna den inguru batean noski, batzuetan nolabait moztortzeko saioak egiten badira ere; gurasoak hamaika kanalez hornituriko telebista ikusten edo interneti atxikirik, mundu zabalean zehar bidaiatzen. Jakina, erakunde publikoek bultzaturiko azterlanetan konponbiderik ez da falta: merkataritzako azalera handiko frankiziek hitz egin behar da euskara ere erabil dezatela konbentzitzeko; interneten euskal web-orriak eta internet bidezko komunikazioak euskaraz bultzatu behar dira, euskararen aldeko aukera hori ez baita galdu behar. Ezin dugu ahaztu edo ukatu leihorietatik euskaraz irten daitekeen baino hamaika aldiz gehiago sartuko dela erdaraz, munduan globalizatuta dauden produktu kopuru amaiezin eta izugarri aldakorren eskutik.

1.2. Euskararen arazoa, ezkutatu nahi den botere-gatazka anizkuna

Funtsean botere-arazo bat dago euskal hiztun-herriaren azpian, agintaritzak bere dimentsio anizkunean heldu nahi ez dion gatazka bat, aitzitik, saihestu eta ezkutatu nahi duena. Euskarazko kultur produktu erakargarriak ekoiztea omen da euskarak irauteko eta suspertzeko estrategiaren zutabe nagusia. Jakina, produktu bat “erakargarri” zerk egiten duen inork argitzen ez badigu ere, erraz antzemango dugu. Adibide bat. Gazte askok New Yorkeko beltz txiro eta delinkuentea imitatzen dute; atsegin zaizkie janzkera, musika eta, neurri batean, bizimodua. Zergatik? Munduko botere-gune nagusitik heltzen zaizkigun kultur sinboloetatik bat delako.

Hizkuntza-arazoa, gatazka ekonomiko, politiko sozial eta kultural baten topagunea da. Hizkuntza-gatazkan talka egiten dute batzuen eta besteen interesak, herritar guztiek ezin dituzte eskubide berak izan, edo maila berekoak; batzuen interesak eta eskubideak besteen interesen kontra daude, eta batzuk besteen mendekoak dira. Euskal hiztun-herriaren arazoaren alderdi nagusia, erabakigarriena, botere-arazoa da.

Euskal hiztun-herriak bere tokia, alegia, botera galtzen joan da historian barna, maila guztietan galdu ere, nahiz ekonomikoan, nahiz politi-

koan, hala kulturen nola hizkuntzan, edo diskurtsoa eraikitze ahalme-
nean. Eta horra hor non agertzen diren demokratikoki eskubide gehiago
eta interes babestuagoak dituzten erdal komunitateak, egituratuagoak,
antolatuagoak, indartsuagoak, handiagoak. Haien parametroen arabera,
dena da integrazioa, askatasuna eta aniztasuna. Kontra jarriz gero, horra
hor gatazka linguistikoa (eta bestelakoak).

Arestian mintzatu naiz neoliberalismoaren estrategia makurraz, eta
esan dut erabaki orokorrak hartuz arazo kolektiboak sortzen dituela bai-
na konponbide indibidualak eskatzen dituela. Bada, estrategia horrekin
bete-betean dator bat hizkuntza botere-gatazka anizkuna dela ezkutatzeko
jokabidea. Gaurko kapitalismoaren jokabide arrunta eta klasikoa. Kor-
porazio globalek, mundu-mailako elkarte eta antolamenduek, eta haien
esane-tara gobernuak, guztioi talde bezala eragiten dizkiguten erabakiak
hartzen dituzte, baina komunikabideak eta legeak erabiltzen dituzte eran-
tzun kolektiboak legitimitatea ukatzeko eta, ahal duten neurrian, araz
kontraktatzat jo eta kriminalizatzeko.³ Hizkuntza-arazoa gizabanakoen
eskubideen eremuko omen da, askatasun-kontua. Baina askatasuna tal-
de boteretsuek dute, kolektiboki, eta aurka egiten dietenak askatasunaren
eta, beraz, demokraziaren kontra ari dira. Espainieraz nonahi hitz egiteko
askatasuna duzu, euskaraz nonahi baliatzeko aldarria egiten baduzu,
ordea, bakea eta inoren askatasuna jartzen duzu kolokan. Euskara bizitza
pribatuan erabil dezakezu, oraindik, baina eremu publikoa ez da zurea.

Eta hizkuntza-gatazka ezkutatzeko strategiari darraio hizkuntza-aldak-
etak politika estrukturalekin duen lotura etenezina saihestea edo ukatzea.
Errealitateak, hala ere, argi erakusten du gaurko politika estrukturalak, glo-
balizatzaileak, neoliberalak, betiko politiken bidetik datozela eta ohiko
ondorioak dituztela euskaldunentzat: botere-sareak mundu-mailan eratz
dituzten heinean, euskaldunengandik urruntzen ari dira botere-guneak, eta
euskaldunen arteko sareak, erabilerari eusteko eta sustatzeko oinarriak
ahultzen eta desegiten. Horretaz mintzatzeko gara hurrengo lerroetan.

2. GLOBALIZAZIOAREN ESKUTIK, MENDEKOTASUN ETA LOTURA HANDIAGOAK

2.1. Botere-sareen antolakuntza globalizazioan

Bide galdu horiek etsaien helmugetara daramatzate euskaldunak. Proze-
su orokortzaileak aspaldikoak dira: inperio handiak, kapitalismoa eta
kolonizazioa, industrializazioa eta, oraingo aldian, pauso bat gehiago,
globalizazioa. Prozesuok mendekotasun hierarkikoa eragiten dute, arian-
arian handitzen baitoa komunitateek kanpoko botere-zentroekiko duten
lotura, komunitate boteretsuagoetan integratzeko bidean. Hala, normale-
an, ezaguna denez, hizkuntza-komunitate batzuek beste batzuk despla-
zaten, ordezkaten eta bereganatzen dituzte.

*Ezin dugu ahaztu edo
ukatu leihu horietatik
euskaraz irten daitekeen
baino hamaika aldiz
gehiago sartuko dela
erdaraz, munduan
globalizatuta dauden
produktu kopuru
amaiezin eta izugarri
aldakorren eskutik.*

*Hizkuntza-arazoa
gizabanakoen eskubideen
eremukoa omen da,
askatasun-kontua. Baina
askatasuna talde
boteretsuek dute,
kolektiboki, eta aurka
egiten dietenak
askatasunaren eta, beraz,
demokraziaren kontra ari
dira.*

Globalizazioak gogotik egiten du desplazamendu horien alde, boterea antolatzeko modutik hasita. Botere-sare globalek metropoli jakin batzuk dituzte ardatz, haietatik antolatzen baitira. Elkarri erabat konektaturik dauden metropoliak dira mundu globalizatuaren lurralde-eremu pribilegiatuak. Irudikatu dezagun zer gertatzen den indar batek gomazko sare bat muturretatik zabaltzen duenean. Sarea handitu ahala, laukitxoan lotura-guneak, ertzak, urruntzen dira elkarrengandik. Laukitxo horietariko batean puntutxo bat irudikatzen badugu, ikusiko dugu nola lotura-gune horietatik gero eta urrunago geratzen den. Gomazko sarean bezala, hala sare ekonomiko, politiko, sozial eta kultural nagusiak handitu ahala, haien lotura-guneak, sarea egituratzen duten botere-guneak, urruntzen zaizkigu.

Egoera horretan, ezer gutxi edukiko dugu geure kontrolpean. Horrekin bukatuko da deslokalizazio ekonomiko eta politikoa, bai eta kultura sortzen eta arautzen duten zentroena ere. Lokalizazio deslokalizatzailea da. Metropoli batzuetan banatuta, boterearen antolaketa lausoa edo zentro askotarikoa du oinarri, baina EEBBn hegemoniarekin. Mendekotasun gero eta handiagoa, hiri- eta kultura-ereduetan ere azalduko da. Izan ere, globalizazioa prozesu metropolizatzailea da berez (Allende, 2008).

Nazioarteko testuinguru horretan, EEBB eta Japoniarekin hobeto lehiatzearen, eskualde-eremuak eraikitzen ahalegintzen dira bai Hego- eta Ertamerikako estatuak bai Europar Batasuna bera ere. Eskualde-eremuak sortzeko lantegi horretan, Europar Batasunak garraio-, energia- eta telekomunikazio-azpiegitura handiak behar ditu, estatu-nazioen gainetik jarduteko tresna egokiak behar dituzenez gero. Eta horixe da gure instituzio gehienen jokalekua, globalizazioaren aldeko apustu irmoa egin baitute: Zelai horretan Euskal Herriak postu ona lortu behar du; ezta pentsatu ere bigarren edo hirugarren mailan jokatzeari! Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan azpiegitura handiak eraikitzeko politikak sona handiko helburu hau du: euskal hiria, gero eta definituagoa den asmo hori, etorkizun hurbilean lehiakorra izatea metropoli globalen sareko eskualde-eremuan.

Horren kariaz, eredu jakin bat bultzatzen dute, era berean ekonomiko, politikoa, soziala eta urbanistikoa: gure gizartearen metropolizazioa. Gure erakundeei ez die ardura eredu horrek, aurreko mundializazioetan gertatu den modura, menderatutako komunitateak desorekatu eta desgertzea badakar, zenbait alderditan egin ere: alderdi demografikoan, sozio-ekonomikoan eta kulturalen, baita bizirik irauteko baldintza fisikoetan ere, eremu fisikoak birmoldatzeak sarritan komunitateak bizirautea oztopatzen edo galarazten baitu.

2.2. Kultur jarduera globalizatzailea. Kultur asimilazioa eta Hibridazioa

Has gaitezen kulturaren mundutik, horixe izaten baita gure kezka nagusia. Kultur globalizazioak hiztun-herri minorizatuak mesede batere egiten

ez dieten hiru fenomeno ezagun eragiten ditu gutxienez: hirien kultur helburu nagusia ikuskizun-antzoki bihurtzea; auzo- eta familia-atxikimenduak ahultzea; kultura, errorik gabeko merkataritza-gai eta fetitxe huts bilakatzea, agonikoa den indibidualizazio prozesua sakonduta.

Lehenengo fenomenoari erreparatuko diogu. Hiri batzuek, Azkunen Bilbo kasurako, lortu nahi dute metropoli globalen aldetik eta eratzen ari diren eskualde-eremu globalizatuetan ezagunak izatea, eta nolabait aintzatetsiak ere bai. Horretarako elkarrekin lehiatzen dute, ikuskizun-eszenatoki bihurtuta, kultura globalaren agertoki gisara onar ditzaten, horrela sare mamitsuagoetara heltzeko itxaropenaz. Gogora ekar dezagun, esate baterako, Guggenheim-en kultur hiria, rockaren nazioarteko jaialdiak eta automobil-lasterketen eszenatokia. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru-aldundiak horretan diru mordoa inbertitzen dute, baina ia ez du ezertxo ere egiten hirian bizi diren euskaldun barreiatuak elkartu eta euskal hiztun-herria trinkotze aldera. Kontrakoa, kanpotik ahalik eta jende gehien ekarri nahi dute bertoko herri erdalduna mundu zabalean eza-gutu dadin.

Bigarren fenomenoari begiratuz gero, ikusiko dugu nola gure agintariak oinarri materialak jartzen ari diren komunikabideek txitean-pitean erakutsi eta proposatzen diguten auzo- eta familia-eredua benetakoa izateko. Hurbiltzen dugun auzo- eta familia-eredu hori zein den argitu nahi badugu, Amerikako Estatu Batuetako hiri askori begiratu besterik ez dago. Hiriguneak barreiatuak, hiri sakabanatuak sortzen dira: bizitzarik gabeko auzoak, komunitate-sarerik gabekoak, auzotik kanpo herritarren jarduera guztiak eremu jakin batzuetan biltzen dituzten hiriak (azalera handiak, kirol-toki kontzentratuak...), geroz eta familia txikiagoez osatuak, sarritan isolatuta dauden pertsonak senide bakarrak direla, eta familian seme-alaba eta gurasoak daudenean ere, lan eta bizi, milaka kilometroko distantzian egiten duten pertsonak izaten dira. Bakardadetik ihesi, hiritarrok askotan talde bitxietan biltzen dira psikologikoki bizirauteko (Star Trecken nazioarteko jarraitzaileen fundazioa, esate baterako), edozein aukera zirtzil egokia baita etsipenari itzuri egiteko. Azken finean, herririk ez bada, gutxienez leinu txikia eta horda egon daitezke hutsu-nea halako moduan ordezkatzeko. Hiritar horiek denbora guztia lanean eta kontsumitzen pasatzen dute. Gizarteak gero eta barne-kohesio txikiagoa duenez, zorrek eta kontsumismoak behartzen dituzte hiritarrak gizarte-arauak betetzera. Premia horiek oso modu desegokian ordezkatzzen dituzte gizarte-kohesioa bermatu izan duten erreferentziak, sinboloak, bizipenak eta helburuak.

Nabaria da kohesio-modu horiek ez direla samurrak hiztun-herri minorizatuarentzat, komunitateaganako atxikimendua, auzo- eta familia-loturarik ez badago, nekez ordezkatzeko baitute hipotekek, auto xar-manta tuneatzeko zorrek, internauten nazioarteko bilkurek eta Michael Jacksonen foroek.

Botere-sare globalek metropoli jakin batzuk dituzte ardatz, haietatik antolatzen baitira. Elkarri erabat konektaturik dauden metropoliak dira mundu globalizatuaren lurralde-eremu pribilegiatuak.

**Kultur globalizazioak
hiztun-herri minorizatu
mesede batere egiten ez
dieten hiru fenomeno
ezagun eragiten ditu
gutxienez: hirien kultur
helburu nagusia
ikuskizun-antzoki
bihurtzea; auzo- eta
familia-atxikimenduak
ahultzea; kultura, errorik
gabeko merkataritza-gai
eta fetitxe huts
bilakatzea, agonikoa den
indibidualizazio prozesua
sakonduta.**

Hirugarren fenomeno oso lotuta dago aurrekoarekin. Dakigunez, aspaldion, gehienbat metropoli globaletatik iristen zaizkigu bizimodu berriak eta, beraz, baloreak, besteak beste, dibertitzeko, erlacionatzeko, elikatzeko, janzteko eta lana antolatze moduak. Hiri global horietan izaten dute egoitza komunikazioaren korporazio transnazionalak, kontsumitzen ditugun kultur produktu gehienak eskaintzen dituztenak. Komunikazioen korporazioek erabiltzen duten teknologia, komunikabide elektronikoak, beste helburu batzuetarako sortu dituzte korporazio finantzarioek eta kontsumo-produktuak ekoizten dituztenek. Interes komunak dituztenez, elkarrekin lan egiten dute guztiek eta, orobat, nazio-estatuaren gainetik beren erabakiez mundua gobernatzen duten erakunde globalek. Interes komuna merkatu globala eratzea da, araurik gabea, une honetan kapitalismoak ahalik eta gehien alaitzen arinen kapitala metatzeko behar duena. Merkatu globalak komunikabide globalak ez ezik (AHT, internet, Pasaiaiko “eko” portua...), kontsumitzaile globalizatu ere behar du eta, beraz, kultura globalizatu bat, bestela, bizimodu eta balore berdintsurik gabe, ezinezkoa baita kontsumo globala txertatzea. Horregatik, kultur globalizazioa, “kultur aniztasuna” delakoa, neurri batean merkatu mota berriaren ondorioa da, eta neurri batean eragile globalizatzaileek bilatzen duten pertsona eredu bat. Hala ere, ez dirudi epe laburrean ez ertainean mundu osoko kultura uniformatu daitekeenik, eta agian ezinezkoa da kultura guztiak berdina izatea, zeren eta, heltzen zaizkigun mezuak globalak badira ere, hartzaileren pertzepzio-baldintzak desberdinak izaten baitira eta, beraz, mezu berek inguru desberdinetan emaitza edo kultur produktu antzekoak baina diferenteak ematen baitituzte. Guztiarekin ere, ukazina da tokian tokiko kulturak oso bizkor hibridatzen ari direla, hibridazioa noraino hel daitekeen ez dakigula.

Kulturaren industrietan bazterrean utzi dituzte kultura ekoizten duten bide tradizionalak, eta balio estrategiko handia eskuratu dute, baloreak eraiki eta transmititzen baitituzte. Adibidez, EEBBen esportazio-gai nagusia kultur gaiak dira 1998tik aurrera. Kultura globalizatuak ezaugarri jakin batzuk ditu:

- *Kultur produktuak salgaiak dira gauza ororen gainetik.* Masen kontsumo produktua da. Ekoizkinak iragankorrak dira, eten gabe berriak, kultur salgaien eten gabeko jario batean. Salgai horiek korporazio handiek fabrikatzen dituzte, eta hedatu, berriz, komunikabideek; bereziki, telebistak, eremu birtualetako baliabide elektronikoek eta frankiziek eta azalera handiek, estandarizatutako eremu fisikoetan.
- *Herrien mugak ezabatzen dira; herriak hutsal dira haren aurrean.* Kanpoko produktuak sartzen ditu, baina baliabide teknologikoekin batera, lurralde- eta denbora-mugarik gabeko eskualde birtualak sustatzen ditu, eta beraz, ahaltsua da herrien lurralde- eta denbora-mugak ezabatzen, baita herritarren arteko sareak desegiten ere. Izan ere, kultu-

ra hori hein handi batean distantzia fisikoa eta denborazkoa ezabazten dituen teknologiez baliatzen da. Horrela, kultura nazionalak lehiatu behar dute kultura globalarekin, are gehiago, etxean bertan lehiatu behar dute hiltzorian dauden beste kultura batzuekin, globalizazioak etorkin-mugimendu eskergak eragiten dituzenez gero.

– *Produktuak berak nahaspila izaten dira.* Masen kultur kontsumoak produktu berri eta originalak behar dituzenez, baina baita benetakoak eta bereziak ere, denetik sartzen den multzo nahasiak sortzen ditu: anabasan eskainiko zaizkigu azken belaunaldiko teknologia eta kultura indigena baten zatiak, hori bai, zati bakoitza bere paketetxoan ondo bilduta; orobat anabasan azalduko dira ohiko kultura-gaiak, etnikoak, identitate-zatiak, klase-kultura baten ezaugarriekin, osagai unibertsal eta tokikoekin, kultura jaso baten alderdiak eta kultura herrikoi batekin nahasturik. Izan ere, kultura eta identitateak salgai huts bihurtu dira, euren jatorrizko zereginetik bereizi eta modu egokian diseinatu ondoren, hots, izan duten funtzioa eta zentzua kenduta.

– *Osotasunik gabeko kultura edo kulturak sortzen dituzte nahaspila horiek,* orain arte kulturek izan duten osotasun eta muga argiaren ordez. Kultura zatikako puzzle bihurtzen da. Kulturaren osagaiak ez dira egonkorak eta koherenteak, iragankorrak eta zatikakoak baizik, toki gehienetan berdintsuak, baina tokian-tokian *halako ukitu berezi bat* izaten dute: ukitu horrexek egiten ditu *bertoko*. Merkatuaren legeak kultura hibrido eta iragankorrak sortzen ditu, kontsumitzeko egokiak. Salgai horiek ordenagailuetatik burmuinera egiten dute salto, bereziki gazteen burura, berezkoak eta originalak balira bezala, norberaren “bizi-estiloak”.

– *Identitate ahulak, tribalak sortzen dira,* sendotasunik gabeak baina pasioz defendatzen direnak.

Dena da berrikuntza, iraungitasuna eta diaspora. Kultura partzial, hibrido eta iragankor horren sinbolo asko Benettonetik eta Hollywoode-tik datoz. Kultura globalaren espazioak ere antzekoak dira leku guztietan, eta antzeko arkitektura dute: aireportuek, autopistek, atsedeen gunek, hotelek, merkataritza-zentroek, frankiziek eta museoek; Alde txikia dago Donostiako Zararen edo Hong-Kong-ekoaren artean. Ikeako altzariak bertsuak dira nonahi, beste kate batzuek ekoizkin berdinak bertako zapoarekin eskaintzen badizkigute ere. *Berriak* dira “euskal” gastronomia edo “poloniarra”, eta antzekoak Donostian eta Varsovia. Musikan, dena nahasteko joera dago, sinkretismo gastronomikoetan bezalaxe. Jantziak, dibertsioak, intereseko eta elkarrizketako gaiak, literatura, zinema... (Apodaka, 2007, 107-132).

Une txar batean heltzen ari da kultura global kontsumista hori Euskal Herrira. Euskal hiztun-herria, mende askotan ahultzen eta desegituratzen ibili ondoren, oso murriztuta, sakabanatuta eta indarge dago, eta dagoeneko ia ez da bere kultur bilakaera autoerregulatzeko gai. Hala, masa-kultura-

Ez dirudi epe laburrean ez ertainean mundu osoko kultura uniformatu daitekeenik, eta agian ezinezkoa da kultura guztiak berdinak izatea, zeren eta, heltzen zaizkigun mezuak globalak badira ere, hartzaileren pertzepzio-baldintzak desberdinak izaten baitira eta, beraz, mezu berek inguru desberdinetan emaitza edo kultur produktu antzekoak baina diferenteak ematen baitituzte.

"Dislokazio demografiko" kontzeptuak adierazten du hiztun-herriko lagunak desagertu edo sakabanatzen direla.

Urbanizazioak gogor astindu ohi ditu dislokatutako herriaren ohiturak, elikadura, janzkera, mundu-ikuskerak, eguneroko hizkera. Horrela, dislokazio soziokultural handia sortzen du.

rekin batera datozen balore, lengoaia, kontzeptu, diskurtso eta harreman-mota berriak, euskararen hizkuntza-sistema hondatzen ari dira, alegia, hiztunen sareak eta hizkuntzaren egitura nahiz erreperitorioa. Hizkuntza menderatzaileak, frantsesa eta gaztelania, hizkuntzaren barru-barruko eremuetan sartzen ari dira, eta hizkuntza transmititzeko nahiz belaunaldi arteko jarraipenerako funtsezkoak diren funtzioak eta eremuak bereganatzen.

Euskal hiztun-herriak babesa aurkitu du Euskal Herriko zenbait eskualde eta herritan, haietan oraindik euskal komunitatea eratuta dago eta. Ereku horiei euskal hizkuntza-komunitatearen "birika" deituko diegu (Zalbide, 2004). Eskualde eta herri horietan, euskarak eutsi egin die bizirik irauteko funtsezko eremuei, eta udal-administrazioan ere badu benetako presentziarik: euskal komunitatearen "birikak" dira, azken gotorlekua, ordezkazina.

EAEn, birika horiek ez daude landa-guneetan, baserri huts diren eskualdeak erabat erdaldunak baitira (Arabako lautada eta mendialdea, Enkarterriak). Aitzitik, kasu askotan, industrializazio handiko lekuetan (Goierrin, esate baterako) daude, Europako kultura kapitalista-industrialaren erdian. Birika horiek euskal kultura-herentziaren osagai askori eutsi diete, eta horrenbestez, alde edo moldez, euskal modernotasun bat eraiki dute, Europa erdiko zenbait ingurutan egin dutenaren antzera. Tamalez, ez daude inolaz ere arrisku bizi batetik libre, AHT, hirigintza sakabanatu eta merkataritza-azalaren mehatxupean baizik. Hurrengo atalean aztertuko dugu globalizazioaren politikak nola ari diren euskal hiztun-herria etorkizunik gabe uzten, Euskal Herriko erakundeen lankidetzak, laguntasun eta ekimenen bidez.

3. LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA AZPIEGITURA HANDIAK EUSKAL HIZTUN-HERRIAREN GEROA MEHATXATZEN

Ekonomiaren, gizartearen eta politikaren egitura- eta antolamendu-aldaketa handien garaian gaude. Artikuluaren hasieran esan dut, aldaketa horiekin batera, neurri bertsuko kultura- eta hizkuntza-aldaketak ere izaten direla. Hizkuntzaren Soziologiak zenbait teoria eskaintzen digu aldaketok elkarri lotuta nola gertatzen diren ulertzeko. Artikulu honetarako Fishmanen (1991, 55-80) teoria hartuko dut gidari, funtsezko lau eragile argiro deskribatzen dituelako: komunitateen dislokazio demografikoa, soziala, kulturala eta fisikoa. Nire irudiko, arrazoi asko eta sendoak ditugu gaurko Euskal Herri honetan Fishmenen ereduak egunero inguratzen gaituzten egitate politiko, ekonomiko eta kulturaleri aplikatzeko.

3.1. Euskal komunitatearen dislokazio demografikoa

"Dislokazio demografiko" kontzeptuak adierazten du hiztun-herriko lagunak desagertu edo sakabanatzen direla. Hala, lagunok beste hiztun-herri

bateko kideen artean nahastu eta aienatzen dira. Batez ere migrazioek eta urbanizazio-prozesuek eragiten dute. Urbanizazioak gogor astindu ohi ditu dislokaturako herriaren ohiturak, elikadura, janzkera, mundu-ikuskera, eguneroko hizkera. Horrela, dislokazio soziokultural handia sortzen du⁴.

XXI. mendearen hasierako Euskal Herrian, migrazioa eta urbanizazioa eredu jakin baten eskutik iritsi dira: hirigintza sakabanatuko metropoliaren eskutik. Autopistak eta autobiak erruz ugaritzen ari dira (Super-sur errepidea, korridoreak, Maltzaga-Urbina, Donostialdeako saihesbidea, erreien emendatzea eta abar), besteak beste, urbanizatzeko sakabanatua, hiri barreiatua (txaletak, baserri bestelakatuak, elkarri atxikitako etxeak...) bultzatu eta bideragarri egiteko. Errepideen erresuma horrek biziki errazten die hiri-kumei herri euskaldunetan bigarren etxebizitzak erostea edo eremu horietara emigratzea, lantoki, aisia-leku eta kontsumotokietara erraz irits daitekeelako euskal gune horietatik. Hala, herri euskaldunak hiriaren luzapen bihurtzen ari dira; batzuetan, baita asteburuko aisia-leku ere. Euskal komunitatean errotu gabeko hiritarrak txertatzen ari dira, eta, euskal hiztun-herriak haiek integratzeko aukerarik ez duenez, mehatxatu egiten dituzte bertakoen harreman-sareak.

Horren froga dugu euskararen jarraipenari buruz egindako estatistikak. Eusko Jaurlaritzak egindako azkena azterlanaren datuak aurreko estatistikekin erkatuz gero, konturatuko gara euskaldunen "birika" diren herrietan, alegia, orainsu arte euskaldunen ehunekoak %80tik gorakoa zen horietan, euskararen ezagutzak puntu batzuk galdu dituela. Mezu ofizialek, ostera, erdal inguruetako euskaldun berrien gorakada saltzen dute etengabe, euskara erabiltzen ez badute ere.

Urbanizazio-eredu horren ondorioz hiri hedakorra irensten ari da gaur orain arte autonomiari eutsi dioten herriak. Gipuzkoa osoa urbanismo sakabanatundun metropoli-eremu bihur daiteke, herriak erdiko gune nagusi baten bizitegi- eta lo-auzo gisa funtzionatzen hasiz gero. Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuek —Bilbok eta Donostiak bereziki— hiri-sarea hedatu eta erdibideko herriak irents ditzakete. Horrela hezur-mamituko litzateke herri honetako nazionalistek amesten duten "Donostia-Baiona euro-hiri" ospetsua, euskal metropoli barreiatua. Amets harri-garria zinez, susmo bat sor dezakeena, alegia, ea euskal nazionalistek eta nazionalista Espainia zaleek ez ote duten mundu bertara irrikatzen. Donostia-Baiona euro-hiria izan da amets horren lehenengo proposamena⁵.

AHTk eredu horren alde jartzen du bere parte, baina ez berak bakarrik. Erakundeek lurraldea inguru espezializatuetan antolatzen dute, kontsumo- eta aisia-aldeak (Urbil, Alcampo, Olaberriako Carrefour, Gorbela, Megapark, Bilbondo, Artea, Ballonti), industria-aldeak eta bizitegi-aldeak zedarrirituz, eta politika estrukturalak xede horretara zuzentzen dituzte. Hala da; aldeok elkarrengandik urrun daudenez, ezinbestekoak dira desplazamendu motorizatuak. Berehala esango digute azpiegitura handiak nahitaezkoak direla. Eta aldi berean telebistako zenbait iragarkik

Errepideen erresuma horrek biziki errazten die hiri-kumei herri euskaldunetan bigarren etxebizitzak erostea edo eremu horietara emigratzea, lantoki, aisia-leku eta kontsumotokietara erraz irits daitekeelako euskal gune horietatik.

Euskal komunitatean errotu gabeko hiritarrak txertatzen ari dira, eta, euskal hiztun-herriak haiek integratzeko aukerarik ez duenez, mehatxatu egiten dituzte bertakoen harreman-sareak.

Eusko Jaurlaritzak egindako azkena azterlanaren datuak aurreko estatistikekin erkatuz gero, konturatuko gara euskaldunen "birika" diren herrietan, alegia, oraintsu arte euskaldunen ehunekoa %80tik gorakoa zen horietan, euskararen ezagutzak puntu batzuk galdu dituela.

lotsarik gabe gure ardurapean utziko dute berotegi-efektuari eta herriak hiltzeko prozesuari aurpegi ematea. Azpiegituron ugaritze eskerga euskal herriaren biriken inguruko hesia estutzen ari da. Eta badakite hori, baina euskaldunek produktu erakargarriak kontsumituz aterako dira aurrera. Gainera, diotenez, ez da ozpin eta ezkor izan behar.

Ildo beretik jarraituz gero, metropoli-kontzentrazioak barne- eta kanpo-migrazio handiak eragiten jarraituko du, azken urteetako antzekoak. Orain oso zaila dena zailagoa izango da, alegia, barruko eta kanpoko etorkinak euskal hiztun-herrian integratzea, nortasun bat bereganatu eta guztiak talde-partaidetza bera sentituz. Baikor pentsatzearen, identitatea erreferentzia-sistema dinamikotzat jotzen badugu ere, aurreikuspena ez da askoz samurragoa izango.

Erakundeek politika estrukturalak euskaldunen onerako pentsatuko balituzte, kontrakoa egin beharko lukete: hirigintza trinkoa sustatu, eskualdez gaundiko mugikortasuna gutxitu eta hirigintza-garapena kontrolatu, bertako belaunaldi berrien kokaleku-beharrak ase ditzan, eta ez beste interes batzuk. Horrek ekonomia-sare propioak izatea ere eskatzen du. Jarraian ekingo diogu funtsezko baldintza horri.

3.2. Euskal komunitatearen dislokazio sozioekonomikoa

“Dislokazio sozioekonomiko” kontzeptuak adierazten du mendeko hiztun-herriko kideak, hizkuntza minorizatuko kideak direnez, desabantaila sozial eta ekonomikoa pairatzen dutela, gizartean eta politikan ahulak baitira eta baliabideak kontrolatzeko gaitasun gutxiago baitute. Zergatik? Haien hizkuntza ez delako beharrezkoa, are txarragoa, traba egiten du jarduera ekonomikoan erabiliz gero. Eskualdean fabrikak, merkataritza-eremuak... eraikitzen direnean, jarduera ekonomikoari eusten dioten harreman-sareak beti beste hizkuntza batez baliatzen dira komunikatzeko. Jakina, euskaldunek arrakasta eta estatus jaso izan dezakete beren lanbidean, baina beste hizkuntza bateko hiztun gisa. Lan-munduan aurrera egin nahi duenak besteen hizkuntza menderatu eta erabili beharko du. Kontua da zeinahi komunitatek ezin duela iraun ekonomiaren eta baliabideen gainean nolabaiteko kontrol-maila izan gabe, bestela esanda, jarduera ekonomikoan autoerregulatzeko nolabaiteko gaitasuna behar du, zeren hori gabe ez baitu oinarri materialik.

Globalizazioak, 3.1.atalean agerian geratu den bezala, norabide horretan egiten digu bultza, gogor eta azkar. Ekonomiaren etengabeko hazkuntzarekin batera metatuz eta kontzentratuz doa botere ekonomikoa ere, bai alderdi finantzarioari, bai merkataritzakoari eta bai industriakoari dagokienez, harik eta oligopolio gutxi batzuen eskuetan geratu arte. Bestalde, ekonomia globalak eskualdeak adar jakin batzuetan espezializatzea sustatzen du, eta dibertsifikazioari kontra egiten. Oligopolioek erabakitzen dute, geroz eta gehiago, zer ekoitzi, nork eta non. Laster, ezer ez da “gurea” izango.

Azpiegitura handien eskutik datorkigun lurralde-antolamendua bat dator nazioartean lehiatzen diren botere-sare globalen premiekin. Negozio handiak baino gehiago dira. Gogora ekar dezagun botere-sare horiek, hasiera batean, eskualde-izaera izan dezaketela, eta horrela gertatzen ari dela Europan, Hegoamerikan eta Asian. AHT-ri, Pasaiako Superportuari, Bilboko super-surri, urtegiak..., sostengua ematen dion estrategia gure lurraldetik harantzago doa, eta horregatik du halako finantziazio oparoa. Adibidez, AHT konexio-zubi bat da, abiadura handiko Pirinioez gaindiko Europako sarearekin lotzeko. Ibarretxe lehendakari ohiak esan zuen bezala, Europako abiadura handiak Euskadin bere geltokia izango du.⁶

AHTk Euskal Autonomia Erkidegoko hiru biztanle-gune handiak batuko ditu (Bilbo, Gasteiz eta Donostiako hiri-eremuak); Iruñea gehituko zaie, adar baten bitartez. Modu horretan, Euskal Herriko gainerako herri eta eskualdeak ahulago eta baztertuago geratuko dira, handi horiekiko eta beste metropoli-gune batzuekiko mendekotasun handiagoarekin. Hedatzen ari diren euskal hiriak botere globalen sukurtsal izateko borrokatuko dira. Ondorioz, botere politiko eta ekonomikoa gehiago kontzentratuko dela pentsatu behar da, hau da, industria-, finantza- eta merkataritza-boterea. Horrez gain, Euskal Herrian zehar sare globalak hedatzeaz batera, gure jarduera ekonomikoa eskualde globalizatuan dagokionaren arabera espezializatuko da. Egoera horretan, ekonomia dibertsifikatu ezinik eta bertoko sareak garatzeko gaitasunik gabe, ez dugu aukera handirik izango geure produkzio-indarrak eta merkatuak kontrolatzeko.

Nola eutsi, beraz, gure toki eta eskualdeetako sare sozio-ekonomikoetatik geratzen den apurrari? Nola eman gure lurraldeari nolabaiteko oinarri ekonomia, alegia, autokontrol eta autoerregulazio ekonomikorako gaitasun pixka bat? Izan ote daiteke benetako “lurralde” bat eskualdeko industria, merkataritza-sare, energia-ekoizpen eta nekazaritza-rik gabe. Ez dirudi. Nola eutsi komunitateari, nola biziberritu, oinarri materialik gabe? Gogoratu dezagun aipatzen ari garen eskualde horietan, hots, azpiegitura erraldoi batzuek gogor astindutakoetan, euskararen birrikak daudela, hau da, eguneroko bizitza nagusiki euskaraz egiten duten komunitateak, hizkuntzak irauteko eta gizarte-transmisiorako funtsezko eremuei eutsi baitie: etxea, familia, auzoa, lagunartea, aisiaren zati bat eta bertako ekonomia-jarduera txikiak.

Euskal hiztun-herriak justu kontrakoa behar du: tokiko eta eskualdeko sare sozio-ekonomikoak, bertako lantegiak, herri eta auzoetako dendak, nekazaritza, merkataritza, tokiko aisia, azokak... sustatuko dituzten politikak, boterea deskontzentratzea, autonomia eta autoerregulaziorako gaitasuna berreskuratzea.

3.3. Kultur dislokazioa

“Kultur dislokazio” kontzeptuak adierazten du hiztun-herriak desegin aurretik komunzki pairatzen duen tokiko kulturaren eta bizi-estiloaren

Kultur produktuak salgaiak dira gauza ororen gainetik. Masen kontsumoko produktua da.

Identitate ahulak, tribalak sortzen dira, sendotasunik gabeak baina pasioz defendatzen direnak.

*"Dislokazio
sozioekonomiko"
kontzeptuak adierazten
du mendeko hiztun-
herriko kideak, hizkuntza
minorizatuko kideak
direnez, desabantaila
sozial eta ekonomikoa
pairatzen dutela,
gizartean eta politikan
ahulak baitira eta
baliabideak
kontrolatzeko gaitasun
gutxiago baitute.*

suntsipena edo asimilazioa.⁷ Asimilazioa ekoizpen-sistemaren antolaketan eta antolaketa sozioekonomiko nahiz politikoan izaten diren eraldatze azkarren bidez gertatzen da, maiz bat-bateko aldaketa teknologikoe-kin batera. Beste jarduera-eremu batzuk, beste kontzeptuzko sistema, beste diskurtso, erlazionatzeko beste modu eta sare, eta beste funtzio eta hierarkia batzuk agertu eta txertatzen dira gizartean. Beste hizkuntza-barietate bat hitz egiten duen botere batetik datozenez, hizkuntza edo barietate "zibilizatzailearen" aldeko desplazamendu- eta ordezkapen-prozesuak izaten dira. Azkenean, herritar guztiak gauza bera egiten dutenean, bizi-estilo bera badute, berdin antolatzen badira, modu berean dibertitzen badira, kultura-produktu berberak kontsumitzen badituzte... guztiak berdin hitz egingo dute, hots, barietate bera erabiliko dute.

Gizakiak lengoaia sinbolikoen sistema ezarri du beraren eta natura-ren artean; berezitasun horri kultura deritzogu. Giza ekintzak kulturaz blaituta daude. Produktu sozial, material edo espiritual guztiak diskurtso sinboliko batekin datoz, hizkuntzan oinarritutako komunikazio-ekintza batekin, eta, horrela, diskurtsoek eduki linguistiko-kontzeptual jakin bat dute, hizkuntzak produktu horiek sortu dituen komunitatearen esperien-zia biltzen baitu. Hizkuntza giza produktu oren ondoan agertzen da, eta esanahi soziala ematen dio. Horregatik, kanpo-jatorriko produktuak sartuz gero, nolabaiteko hizkuntza- eta kultura-inpaktua sortzen da. Bai-na ez du halabeharrez zertan traumatikoa izan. Hiztun-herriak eduki berriak integratzeko gaitasuna badu, hau da, produktuak hurbiltzen diz- kion diskurtsoa bere testuinguru linguistiko-kulturalera ekartzeko gai bada. Komunitateak nahikoa kementu-linguistikoa behar du izan, alegia, bere bilakaera ekonomikoa, politikoa, eta kulturala autoerregulatze-ko gaitasuna, diskurtso berriek bere oreka linguistikoan pitzadurak ez sortzeko. Bestela, kultur distorsioa eragingo dute, hizkuntzaren alderdia ere barne-hartuta. Diskurtso berriak eta haien hizkerak pentsamenduan eta hizkuntzan kokatzen dira. Horregatik, prozesua ez da hizkuntza-des- plazamendu soila, ez da soilik hizkuntza baten ordeze bestea aukeratzea. Aitzitik, hiztun-herria mendeko eta ahula bada, kultura berriekin sartzen diren kontzeptu berriek tokiko hizkuntza-sistema arian-arian desegiten dute. Transformazio-prozesu hau konplexua da; gizabanakoen erlaciona- tzeko moduak ere aldatzen dira, argudioak eta arrazoiak eratu eta emateko moduak, diskurtsoaren estiloa eta abar aldatzen dira.

Erreparatu diezaiogun gizartea, gizatalde oro hierarkikoa dela, gainerako ugaztun taldekoien antzera. Sare horizontalak eratzen ditugu zeregin batzuetarako, baina gizarteari forma ematen dioten harremanak hierarkikoki egituratzen dira. Hori horrela izanik, taldeen arteko harre- manek, intentsitate nahikoa badute, asimilazio-prozesua sustatzen dute lehenago edo beranduago. Herriak oro har, eta hiztun-herriak partikular- ki, kontaktuan hasten direnean, erlazio hierarkikoan kokatzen dira, beti nabaria ez bada ere. Azkenean, historiaren etengabeko gurpilaren mugit-

menduan, asimilazioa egongo da, baketsua edo gatazkatsua, edo, agian, gatazkaren ondoren haustura gertatuko da.

Euskal Herriak asko daki horretaz. Aitzinako garaietatik ez hasteko, gogora dezagun orain dela gutxi zer gertatu den. XIX. mendearen erdialdean, lehenengo hedapen kapitalista handiak eragindako prozesu mundializatzailearen ondorioz, euskal kultura tradizionala neurri handi batean asimilatua izan zen, eta euskarak atzerakada handia jasan zuen. Gero, Frankismoak harrapaketa sozio-ekonomiko eta kulturala inposatu zuen. Baina agian zuzeneko errepresioa baino eragingarriagoa izan zen baserriko kulturak jasan zuen azken txikizioa. Berrogeita hamarreko urteetan hasi zen, migrazio masiboekin, hiritartze orokorrarekin eta, bereziki, masa-kulturen eraginarekin, hots, kontsumismoarekin. Garaiko kontsumo-gizartearen sinboloa *seiscentosa* eta telebista dira. Kapitalismoaren bigarren mundializazio-prozesu handia “globalizazio” izenaz bataiatu dute; haren inpaktu kultural eta linguistikoa lehenengoaren parekoa da, eta, batek daki, agian, handiagoa.

Hasieran esan dugu aldaketa ekonomikoak, sozialak eta politikoak kultur aldaketa eragiten dutela eta, beraz, baita aldaketa linguistikoa ere. Zalantzarik ez: horrelako aldaketak gertatzen ari dira une honetan. Baina, zein hizkuntzaren edo hizkuntzen alde?

3.3.1. Kultura eta hizkuntza globalak

Globalizazioaren azpiegitura handiek euskal komunitatearen kultur dislokazioa areagotzen dute. Kultur diferentziak gutxitu egiten dira botere zentroetatik hedatutako prozesu zentripetu asimilatzaileen eraginez, masa-kontsumoko kulturak barneratzen dituztelako. Gero eta gehiago kontsumitzen ari gara edozein gizarte “garatuko” biztanlek kontsumitzen duen gauza bera, modu bertsuan, antzeko lekuetan, erreferentzia sinboliko eta erlazio bertsuekin. Mundu metropoliarra eta globala etenik gabe eraikitzen ari da bere gizarte-eredua, bere kultura-oinarriak, bere hizkerak eta hizkuntzak.

Kontsumo-kultura metropoliarrek beste kulturak desagerrarazi ahal, hizkuntza metropoliarrek ordezkaturiko dituzte beste hizkera eta hizkuntzak. Horrek ez du esan nahi globalizazioak une honetan ingelesa maila guztietarako gehien bultzatzen duen hizkuntza denik. Ingelesa globalizazioaren hizkuntza-garraiatazile nagusia bada ere, prozesua ez da sinplea ez lineala. Esan dugunez, globalizazioaren eskalan, lehenengo mailadian, “erregionalizazioa” edo eskualde globalak sortzen dira. Eskualde globaletako hizkuntzak dira prozesu horren mesedea eskertu behar dutenak, esate baterako, arabiera, espainiera, frantsesa, india... Eta horra hor paradoxa: eskualdeko hizkuntza horiek ingelesak baino lehenago eta sendoago estutzen dituzte hiztun-herri ahulen barietateak (Fishman, 2001). Izan ere, eskualdeko interakzioen ugaritzeak (merkataritza, bidaiak, mug-

Ekonomia globalak eskualdeak adar jakin batzuetan espezializatzea sustatzen du, eta dibertsifikazioari kontra egiten. Oligopolioek erabakitzen dute, geroz eta gehiago, zer ekoitzi, nork eta non. Laster, ezer ez da “gurea” izango.

***Euskal hiztun-herriak
justu kontrakoa behar du:
tokiko eta eskualdeko
sare sozio-ekonomikoak,
bertako lantegiak, herri
eta auzoetako dendak,
nekazaritza,
merkataritza, tokiko
aisia, azokak... sustatuko
dituzten politikak,
boterea
deskontzentratzea,
autonomia eta
autoerregulaziorako
gaitasuna berreskuratzea.***

menu demografikoak, mestizajea etab.) hizkuntza horien hedapena bultzatzen du. Eskualde globaleko azpiegiturak ondo erakusten duten bezala, globalizazioak areagotu egiten ditu sare handien arteko komunikazioa, merkatu-interakzioa eta eskualde-mailako migrazioak. Nazioarteko erakundeek eta batzordeek ere laguntzen dute horretan.

3.3.2. Kultur eta hizkuntza-atzerakada

Joshua Fishmanek dioenez, euskararena bezalako egoeretan, berezko kulturaren mugei eustea da lehentasuna, batez ere, mendebaldeko herrietan (Fishman, 1999, 113-121). Ikusi dugunez, horretarako, funtsezkoa da, gutxienez, hiztun-talde sendoenen jarraipena bermatzea, alegia, hizkuntzaren gizarte-transmisiorako oinarrizko eremuetan interakzio soziolinguistiko indartsuetarako sareak dituztenen jarraipena. Eguneroko hizkuntzak dio ardura, egoera ez-formaletakoak, bizitza pertsonalean gehien eragiten duten harremanetan erabiltzen denak.⁸

Baina ez dirudi norabide horretan goazenik. Aitzitik, gero eta gehiago ari dira globalizazioaren kultur forma eta edukiak sartzen, kultura guztiz kontsumitzailerik, indibidualista baten produktuak, estiloak eta baloreak. Mugikortasun handi baina deslokalizatzailearen eskutik datorrez gero, gizaki deserrotu bat dakar, tokiko eta komunitateko lotura gutxi dituen, bai eta familia-lotura eskasak ere. Bakartasunaren etsipenari itzuri egiteko, tribalizazioan aurkitzen du azken lubakia. Masa-kulturako produktuek hezurramitzen dituzte haren balioak.

Kezka justifikatuta dago. Baliteke euskal hiztun-herriak ez izatea olde horri eusteko behar besteko autoerregulazio-ahalmena, labur esanda, beharrezko boterea. Begi-bistan dagoenez, kultur produktu berriak herrien bizimodua ordeztan ari dira, eta, horrela, euskal komunitatea irensten. Ikusi besterik ez dago Euskal Herriko eskualde eta herrietan azken bi edo hiru hamarkadetan izan den ohitura eta bizi-estiloaren bilakaera. Adibidez, Alegia herrian, Gipuzkoan egin daiteke transformazio horren jarraipena: azken hamazortzi edo hogeitun herriko dendak eta tabernen erdiak desagertu dira. Herria hustu ahala, Gipuzkoako aisia- eta kontsumo-azalera handiak ireki dituzte.

Azalera handiek, herrietako merkataritza ordezteaz gain, bertoko aisia ere ordeztan dute: elkarteak edo txokoak, tabernak, herri-bazkari edo askariak, eta beste jarduerak asko. Horien ordeztan bolatoki elektronikoen, joko-aretoen, kasino txikiak, zinema-areto ikusgarriak jarri dituzte; inor ez dugu ezagutzen, ez leihatilan ezta ondoko besaulkian ere. Eta ezagutzen ez ditugun horiek erdaraz mintzo dira, mintzo zaizkigu. Hizkuntzak ere, noski, desplazamendua bizi du: ia guztia dago beste hizkuntza batean adierazita, testuak, errotuluak, propaganda, triptikoak, kartelak, tiketak... Esan beharrik ere ez dago filmetako pertsonaiek gaztelaniaz hitz egiten dutela, eta gizarte eta bizi-estilo amerikarra proposatzen dutela.

Lehen ere bai, duda gutxi, baina ez zegoen bideoklubik, ez satellite bidez kontratatutako zinemarik, ez Internetetik filmak eskuratzeko aukerarik.

Xabier Urdangarinek (1998) 4.3. atalaren hasieran azaldu dudan produktu, diskurtso eta hizkuntza-desplazamenduaren adibide batzuk eman ditu. Autoreak dioenez, gizarte-ekintza edo jarduera bat hizkuntza jakin baten bidez heltzen zaigunean, hizkuntza horretan barneratzen ditugu ekintza edo jarduera berriari loturiko portaera-ereduak, erlazioak eta dagokien interpretazioa. Horren ondorioz, kultur osagai horiek beste hizkuntzan eransten dizkiogu geure ezagutza soziokulturalari. Izan ere, gizarteremu bakoitzak bere osagaiak eta erlazioak antolatzean hizkuntza-portaera bat eskatzen du. Horrela, euskararen erabilerako eremu bat, adibidez, lagunen arteko aisialdia, beste hizkuntza batek bereganatzen du.

Urdangarinek erakusten duenez, erosketak, jarduera oso oinarritzko bat, errotik ari dira aldatzen. Inkesta soziolinguistikoek adierazten dute euskararen erabilerak behera egiten duela, nabarmenki egin ere, norabide honetan: azoka publikoa → herriko denda → supermerkatua. Aldaketa soziokulturalak goitik behera jaitsi dute azoka publikoaren pisua, eta orain, baita herri eta auzoetako dendena ere. Euskararen erabilerak ere behera egin du ibilbide berean, harik eta supermerkatuetan mailarik baxuenera iritsi arte. Zergatik? Alboan ditugun dendariak eta kontsumitzaileak ez direlako gure harreman-sarekoak, euskararen harreman-sarekoak, produktuen izenak kanpotik eta beste hizkuntza batean datozelako, eta orobat azalpentestuak, propaganda, eskaintzak eta megafono bidezko mezuak ere.

Heriotzaren urbanizazioa dugu Xabier Urdangarinek jarritako beste adibide bat. Heriotzak sakratutasuna galdu du, desozializatu egin da, eta senide-sare txiki batera mugatu. Herriko kanpaiek jada ez dute heriotzaren berri ematen. Hirian, ospitalean, erakunde bateko langilez inguraturik hiltzen gara. Auzokoak eta senideak ez dira hildakoaren etxera etortzen, otoitz egin, jan eta hitz egitera. Hildakoa leku inperzonal batean, beilatokian, ikusten dugu. Hileta-elizkizunean, gorpua ez da bertan egoten. Heriotza-errituak ere desagertu egin dira, eta baita errituon hizkuntza ere. Euskara erabat baztertu ez bada ere, hileta-elizkizunetako lexikorean, espresioen eta fraseologiaren parte bat gaztelaniak eragozten du. Euskara galtzen ari da eremu hori ere, hiriaren presiopean.

Hesia ixteko, herri horietan, beste aisia-forma eta harreman-mota batzuk ere orokortzen ari dira. Ohikoak bihurtzen ari dira asteburuetako bidaiak, etxetik urrun igarotzen diren oporrak, urrutiko lekuetarako turismo-bidaiak, landa-etxeetako egonaldiak, eski-estazioetakoak, nazioarteko aisia-zentroetakoak eta abar. Tele-aisia ere hedatzen ari da: satellite eta kable bidezko telebista, bideokontsolak, Internet, eta Interneteko banaketa-, berri- eta eztabaida-zirkuluak, Internetek ekartzen dituen nazioko eta nazioarteko ekitaldiak, txat-ak eta abar. Oro har, kontsumo horiek, batetik, pertsonak kaleetatik erretiratzen dituzte, eta, bestetik, kultur presioa areagotzen dute, produktu-bonbardaketa etengabearen bidez.

Produktu sozial, material edo espiritual guztiak diskurtso sinboliko batekin datoz, hizkuntzan oinarritutako komunikazio-ekintza batekin, eta, horrela, diskurtsoek eduki linguistiko-kontzeptual jakin bat dute, hizkuntzak produktu horiek sortu dituen komunitatearen esperientzia biltzen baitu.

*Eskualde globaletako
hizkuntzak dira prozesu
horren mesedea eskertu
behar dutenak, esate
baterako, arabiera,
espainiera, frantsesa,
hindia... Eta horra hor
paradoxa: eskualdeko
hizkuntza horiek
ingelesak baino lehenago
eta sendoago estutzen
dituzte hiztun-herri
ahulen barietateak.*

Teknologia berriak, globalizataileak, hainbeste maite ditugun horiek, gaur egun heroi zibilizatailearen arketipoa haragitzen dutenek, arreta berezia merezi dute. Egia da sakabanatutako euskaldunak errazago erlaziona daitezkeela haiei esker, eta euskaldunen bakardadea gutxitu dezaketela. Baliteke azken aterpea izatea birtualitatean bakarrik nolabaiteko harreman-sarea eratu dezaketenentzat, desagertzearen dauden hiztunherrientzat. Hor daude eta ergelkeria litzateke, une honetan behintzat, ez erabiltzea. Ilusio gehirik ez, ordea. Alde on batzuk izanagatik ere, kalteak ez dira makalak. Telekomunikazioak, eremu fisikorik eta mugarik ez duenez, oraindik ere babesgabeago uzten du hizkuntza minorizatu, eskualdeetako eta munduko sare globaletako hizkuntza handien aurrean. Izan ere, leiho hori ezin da itxi; euskara mundura ateratzen den leihotik ordenatu, antolatu, kontrolatu ezin daitezkeen sare-, irudi-, mezu-, ekoizkin-kopuru amaigabea sartzen da.

Bestalde, teknologiok indibidualismoa areagotzen dute, internautak etxetik, bakarrik normalean, beste internautekin inolako harreman fisikorik gabe ibiltzen direlako. Teknologia berriek gazteak kaletik ateratzen badituzte, aurrez aurreko erlazioa galtzeak ez du lagunduko euskararen funtsezko eremuen tokiko sareei eusten. Are gutxiago indibidualismoak gaur egun duen gorputz berriak: nartzisismoak. Hortik nekez erdietsi daiteke hiztunherriarekiko eta, oro har, komunitatearekiko atxikimendurik, bai ordea tribalizazioa, identitate anizkuna, partziala, aldakorra eta frikikeria.

3.3.3. Transmisioa etetea eta euskararen transmisio partziala

Ondorioa bistakoa da: euskararen birrikak eta aurrez aurreko interakzio-sare indartsuak ahultzen ari dira, eta euskara partida galtzen hasi da bere azken gotorlekuetan. Halabeharrezko optimismo instituzionalak adierazten duenaren kontra, euskararen belaunaldi-transmisioak okerrera egiten jarraitzen du, transmisioa partziala baita (Zalbide, 2008).⁹

Eguneroko bizitzako euskararen erreperitorioak (lexikoa, espresioak, fraseologia, gramatika...) pobretzen jarraitzen du. Gaztelaniaren eta frantsesaren presentzia orain urte batzuk baino askoz handiagoa da; hizkuntzok gehiago sartzen dira lagun, bizilagunen eta senideen arteko harremanetan, baita etxean bertan ere. Produktu mundializatuen berrikeriak, bizi-estilo berriko diskurtsoak presente daude, egunero, hala etxeko elkarriketetan nola lagun arteko harremanetan.

Euskararen erreperitorioak okerrera egin du oraindik ere euskara ohiko hizkuntza duten lagunartean. Datu batzuen arabera, zenbait herritan, gazteek euskara orain hogeit hamar urte baino gehiago erabiltzen dute, baina, datua positiboa izanagatik ere, ez du hizkuntzaren osasuna bermatzen. Bestetik, badirudi gaztelania gehiago dagoela etxean, familia-roletan, anai-arreben eta lehengusu-lehengusinen arteko harremanetan... Produktu eta bizi-estilo berriek hizkuntza-

ren barnetik ere desplazatzen dute euskara. Jakina, gazteek berezkoa dute hizkuntzaren errepertorioa aldatzeko joera, identitate-bilaketaren eta bereizi beharraren ezaugarri bat da. Horregatik du gazteen hizkuntza-berrikuntzak izaera ziklikoa. Baina azaltzen ari naizen fenomeno urrunago doa: hizkuntza barnetik desegiteaz ari gara, hibridazioa eutsi eta gelditu ezinezkoa.

Azkenik, hizkuntzaren galera, partziala bada ere, berez, kultur galera bat da, hizkuntzak sinesmenak, balioak eta kultura-jarrerak islatu eta gordetzen baititu. Hizkuntzan jalki eta geratu dira aurreko belaunaldien mundu-kontzeptualizazioak, lehenagoko gizarte-taldeenak. Hiztegiak, partzialki eta zeharka bada ere, komunitate baten pentsamoldea edo mundu-ikuskerara islatzen du, nolabaiteko kohesio eta homogeneotasunaren emaitza denez.

3.4. Eremu fisikoaren dislokazioa

Dislokazio fisikoa genozidioarekin, goseteekin eta hondamendi naturalekin dago lotuta, hau da, komunitateak jarraitzea fisikoki eragozten duen horrekin. Kausa horiek ez dira normalak gaur egungo mendebaldeko gizartean; baina badaude zenbait kasu, hala nola yiddish judu-komunitatearekin gertatutakoa, turkiarrek armeniarren kontra egindako genozidioa eta Sobiet Batasunak egindako lur-kentzeak. Mendebaldean ohikoa ez bada ere, izaten dira munduko beste zenbait tokitan.

Dena den, eremu-dislokaziorako beste modu bat ere badela esan daiteke: urtegiak, autopistak eta autobiak eraikitzea, urbanizazioak egitea, industriguneak eraikitzea, basoak botatzea eta abar, hau da, fisikoki bertako komunitate batek bizirautea zailtzen edo eragozten duen oro. Hala, bada, ezin da ahaztu, XIX. mendean, gaur egungo modernitatearen bidea zabaldu zuten urbanizazio-industrializazio prozesu sakonekin batera, eremu fisikoan eta komunikazioetan ere aldaketa handiak izan zirela, eta, azken finean, baita azpiegiturretan ere. Aldaketa horiek guztiek aurrera egin dute XX. mendean, eta nabarmen aldatu dute inguru fisikoa, eta komunikazioak, berriz, bertako garapena oztopatzeko joera dutela diseinatu dituzte.

Hori guztia oso gogoan hartzea komeni da, ezen bultzada globalizazioarekin ere komunitateen euskarri den eremu fisikoaren gaineko inpaktu handiak izango baititugu. Inpaktu horiek, behin baino gehiagotan salatu den bezala, asko mugatzen dute eskualdeko ekonomiak eta sareak ezartzeko aukera, eta, beraz, baita hizkuntza- eta kultura-bilakae-rak autoerregulatzeko duen gaitasuna ere. Horixe da AHTren aurkako eta gainerako azpiegitura handien aurkako borroka ekosozialaren abiapuntuetako bat; izan ere, azpiegitura horien bidez, kolore guztietako garapenkeria “iraunkorrak” geure iraupen biologikoa, sozioekonomikoa eta kulturala mehatxatzen du.

Gero eta gehiago ari dira globalizazioaren kultur forma eta edukiak sartzen, kultura guztiz kontsumitzaile, individualista baten produktuak, estiloak eta baloreak.

Baliteke euskal hiztun-herriak ez izatea olde horri eusteko behar besteko autoerregulazio-ahalmena, labur esanda, beharrezko boterea. Begibistan dagoenez, kultur produktu berriak herrien bizimodua ordeztzen ari dira, eta, horrela, euskal komunitatea irensten.

4. ESTRATEGIA BILA

Hitz batez, euskararen birikek ahultzen jarraitzen dute, eta euskal komunitatearen hizkuntza- eta kultura-asimilazioa gertatzeko bidean da, Euskal Herrian mundializazioa eraikitzen ari den metropoli-inguruko bizimoduen eta hirien bidez, horretara jotzen baitute bertoko erakundeen politikek eta jokoan diharduten botere hegemonikoek. Asimilazioa demografikoa, sozioekonomikoa eta urbanistikoa ere bada, euskararen birikak pixkanaka-pixkanaka hiri barreiatu, erregional eta globalizatua- ren barruan sartzen ari baitira. Horixe da euskal botere publikoek bultzatzen duten metropoli-hiriaren eredua; horixe da garapenkeriaren gaur egungo noranzkoa, eta AHT, Supersur errepidea, Jaizkibeiko superportua, berriz, haien proiektuen bandera-ontziak. Oro har, euskara gaztelaniak ordezteko prozesuak bizkortzen ari dira, eta konponbidea ez da hizkuntza-politika ofizialaren zaintza aringarriak egitea, beste zibilizazio-, garapen-, gizarte-eredu bat bultzatzea baizik.

Egoera horretan, instituzioen politikek euskararen birikak babestea eduki behar luke lehentasun bakartzat, haiek gabe komunitateak ez baitu aukerarik izango belaunaldi berriei gutxieneko gizarte-oinarria duen hizkuntza transmititzeko. Gune horien eskualdeek baldintza egokiak behar dituzte, ezinbestean, bestela, endemismo bihurtuta, isolamenduak haien kemena, gero eta ahulagoa, agortuko du eta.

Horretarako, funtsezko zenbait ekintza-ildo proposatu ohi dira, batez ere ekologismo sozialaren ikuspegitik:

- Hiztun-herria trinkotzea bultzatzea, kontzentrazio demografikoa bultzatuz, eta hiztunen sakabanaketa geldiaraziz.
- Komunitatearen oinarri sozioekonomikotik geratzen dena indartzea, nolabaiteko autonomia emateko gai diren sareak sortzea, hiztun-herriak eskualdeko ekonomia nolabait kontrolatzeko gaitasuna izan ezan.
- Komunitateak bere kultura-bilakaera autoerregulatzeko gaitasuna berreskuratzen ahalegintzea.
- Eremu fisikoaren batasuna edo jarraitasuna berreskuratzea eta bermatzea, ezinbestekoa izan daitekeelako eskualdea ardatz duten jarduerak garatzeko.

Finean, proposatzen den konponbidea herria, eta, goragoko maila batean, eskualdea ekonomia- eta gizarte-jardueraren ardatz gisara jartzea da. Ereduek gertukotasunari aitortzen dio lehentasuna, boterea hurbildu eta berreskuratu nahi du, deskontzentratu, herriaren alde. Horretarako, toki- eta eskualde-sareak eta sareon ekonomia-euskarriak indartu eta lehenetsi behar dira, hau da, herriko eta eskualdeko industria, merkataritza, nekazaritza, abeltzaintza. Gizarte autokontrolatua eta automugatua da

giltzarria, kontsumo-ekonomiaren etengabeko hazkundearen aurrean bere profila edo ingurumaria galtzen ez duena. Komunitateak, bere burua ardatz hartzen ez badu, ez dio eutsiko bere kultura-ondareari, ez du jakingo kanpotik datozen eraginak eta giza bilakaeraren halabeharrezko aldaketak asimilatuz (Heraklitok: “Munduan den oro dabil”) bizirik irauten.

Euskarak kondizio horiek guztiak behar ditu komunitatea trinkotze aldera. Baina horiekin batera ezinbestekoa da euskal komunitateak borondatea izatea bere buruari fidel izaten jarraitzeko, euskaldun izaten jarraitzeko. Euskaldunen ibilbidea ez da oso luzea izango gainerakoak bezalakoak izan nahi badute. Jon Sarasuak dio modernitatea geure burua homologatzeko eskuratu nahi dugun kanpoko zerbaiten antzera ikusten dugula, mendebaldeko kulturako eredu handiek erakartzen gaituztelako. Eredu horien arabera neurtzen dugu gauzen balioa, haiek dira gure erregela. Hala, metropolia halako moduan imitatuz “probintziano” eta “atzeratu” bihurtzen gara.

Konponbideak bilatu nahirik, badakigu diskurtso egoki bat behar dugula, balore eragingarriak, gure aldekoak. Diskurtsoak egokia izango bada, lagundu behar digu geure buruarenganako konfiantza, harrotasuna, autoestimua berreskuratzen eta baieztatzen. Gu geu izanda bakarrik egon gaitzake gainerakoengana irekita; baldintza hori gabe, hurbiltze horri asimilazio deritzo. Gure modernotasunari forma ematen lagunduko diguten baldintzak lortzearen alde borrokatzea da alternatiba: gure ohiturak, festak, aisia, errituak, azokak, gastronomia, txokoak eta gazte-txeak, herriko plazetan egiten ditugun bazkari edo askariak, gure kultura-ekitaldi eta jarduerak, toki eta eskualde-sareak izango dituen modernotasuna. Munduan dugun lekutik, gure interesen arabera, besteekiko harremanek ematen digutenari irekita egotea da.

Esandako gutzia laburbilduz, hona hemen proposatzen ditugun arlo sozio-ekonomiko eta soziokulturaleko giltzarri orokor euskal herri-hiztunen etorkizuna bermatzeko:

- 1) Zibilizazio-, garapen- eta gizarte-eredua aldatu behar da, ekonomiaren hazkunde etengabea helburu eta balio nagusi izan ez dadin, eta boterea eta baliabideak deskontzentra daitezten.
- 2) Toki- eta eskualde-mugikortasunari lehentasuna eman behar zaio.
- 3) Urbanizazio-eredu trinkoak bultzatzea, eredu sakabanatuek auzoak eta auzotarren eta bertakoen arteko harreman-sareak galarazten baitituzte, eta, lokabetutako masak sartuta, komunitatearen kohesio demografikoa kaltetzen baitute.
- 4) Eskualdeko ekonomia sustatu behar da, elikadura, merkataritza, energia... arloetan, ahal den neurrian, euskal herria beregaina izan dadin.
- 5) Tokiko topalekuak, tokiko harreman-sareak, aisia, tabernak eta dendak... bultzatu behar dira.

Alboan ditugun dendariak eta kontsumitzaileak ez direlako gure harreman-sarekoak, euskararen harreman-sarekoak, produktuen izenak kanpotik eta beste hizkuntza batean datozelako, eta orobat azalpen-testuak, propaganda, eskaintzak eta megafono bidezko mezuak ere.

Teknologia berriek gazteak kaletik ateratzen badituzte, aurrez aurreko erlazioa galtzeak ez du lagunduko euskararen funtsezko eremuen tokiko sareei eusten. Are gutxiago individualismoak gaur egun duen gorputz berriak: nartzisismoak. Hortik nekez erdietsi daiteke hiztun-herriarekiko eta, oro har, komunitatearekiko atxikimendurik, bai ordea tribalizazioa, identitate anizkuna, partziala, aldakorra eta frikikeria.

6) Prometeoren sindromearen gaur egungo bertsioa desmitifikatu behar da, alegia, teknologia berrietarako lilura, eta haren ordeztu Ama Lurraren mito zaharra forma berriak erabilita eguneratu, berriaren eta zaharraren, tradizioaren eta berrikuntzaren, irauten duenaren eta bilakaeraren etengabeko fluxuaren arteko oreka hobea lortzeko. Gizakiok, kulturadun izakiak izanik, mitoak behar ditugu elkarrekin jarduteko. Mitorik gurtzekotan, natura, herri eta erkideekiko lotzen gaituztenak izan daitezela sakratu.

5. AZKEN GOGOETA: IDEOLOGIA ETA POLITIKA

Euskal hiztun-herriaren arazoak, ekonomikoa, politikoa eta kulturala denez, konponbide integrala behar du, esparru ekonomikoan, politikoan eta kulturalean. Sustrai sakonak eta hedatuak ditu, ez dago gaurko erakuntza sozio-ekonomiko eta sozio-politikoak astindu gabe euskarak irauterik. Hor dago koska. Euskaltzale, nazionalista edo abertzale gehienek, euskaldun askoren antzera, ez dute bere bizimodu gero eta globalizatuagoa, postmodernoagoa, metropolitanoagoa kolokan jarri nahi. Euskara ez da beharrezkoa bizitzeko, hirugarren edo laugarren mailako kontu bat da gehienek bizitzan. Alde batetik arranguraz, iragan minaz begiratzen zaio euskarari, baina beste alde batetik ukitu poetiko batez, eta horrela poesia horrek aukera ematen du eguneroko bizitza hits eta goibela gozoago bihurtzeko, identitate-ikur bat izateko, identitate-mosaikoaren zurrubiloan geure nortasun-grina eta gosea pittin bat asetzeko, oraindik zerbait transzendentala geratzen zaigula pentsatuta geure burua engainatzen jarraitzeko.

Gatazka politikoa, ekonomikoa, linguistikoa eta kulturala ekidin nahi dugu. Gaixo gaude, makal, etsita eta zapuztuta, eta dekadentzia bizitit, zahartzarotik, bakearekin egiten dugu amets. Hamaika azterlan tekniko bultzatzen dugu euskararen berreskurapenerako baldintzak zehaztearren, teoriak errealitatea ordeztzeko ahalmena izango balu bezala. Azterlanak ondo daude, baina askoz gehiago behar da erdalduntzeari arnasa ematen dioten hauspoak geldiarazteko. Eta zer izan daitekeen susmatzen dugunez, ez dugu horra begiratu nahi. Orduan, metafisikaren bidetik saiatzen gara euskal herriarentzat botika eragingarriak aurkitzen: aniztasuna, integrazioa, adostasuna, guztientzako eskubideak, hizkuntzen berdintasuna, demokrazia, eta noski, euskal produktuen ametssezko erakargarritasuna, eta, jakina, merkatua, merkatu kulturalean euskarazko produktu erakargarriak ezinbestekoak direnez.

Euskal hiztun-herriak, ordea, biziko bada, iraultza behar du, inoiz baino zailagoa den zerbait, baina aldi berean inoiz baino premiazoagoa, aldaketa sakona, gure zibilizazioaren sustraietarainokoa, orotarikoa. Euskal herria biziko bada, hein handi batean, botere ekonomikoa, politikoa eta kulturala berreskuratu behar du, bestela ezin baitu bere burua erregu-

latu, bere ibilbidearen nolabaiteko kontrola izan, bere burua babestu eta defendatu, eta, beraz, ezin baitu kemenik gabe aurrera egin. Iraultza horretarako ez dugu eredurik, ez dakigu baketsua edo bortitza izango den, iraultzaren subjektuak nor izan daitezkeen, zein estrategiari jarraitu behar-ko zaion, mundua iraultzeko oinarri ideologikoak zein diren. Hori guztia, berez, ez da arazo handia, teoria iraultzaile klasikoen porrotaren ostean, ez baitugu behar bide guztiak ibili aurretik argitzen dizkigun eskema orokor, oso eta amaiturik. Aitzitik, teoriaren hutsuneak badu alde onik: eskuak libre ditugu geure bideak bilatu eta jorratzeko. Baina ideia bat, abiapuntua, proposatu nahi dut: iraultzaren odola mugituko duen bihotza, erkidetasuna. Kapitalismoaren programak markatu duen kontrako bidetik ibili behar genuke. Burgesiaren iraultzatik aurrera diskurtso nagusiaren xedea eta ondorioa gizabanakoa ardatz bihurtzea izan da, erkidetasun oro suntsitzea, geure bizi-poza eta osasun mentalaren kaltetan bada ere. Ez dira behar bezain produktiboak. Kapitalismoak eskatzen digu gure izaeraren alderdi bat errepara botatzea, alderdi komunitarioa. Hutsune hori jasanezin bihurtzen ari da. Kontsulta psikiatrikoei lan eskerga ematen die. Gaur lanbide eta negozio ona, etorkizun hurbilean paregabea.

Iraultza hori hurbilduko digun diskurtsoa, oinarri ideologikoak, baloreak, estrategia ekonomikoa, politikoa eta kulturala eraikitzen joatea da euskal inteligentsia baten eginbehar nagusia. Talde-lana hori ere. Nire irudiko, diskurtso eta estrategia egokirik ez duelarik, mendekotasun ideologiko handia erakusten du euskalgintzak, eta boterearekin balore berdintsuak partekatzen direnean, mendekoa beti irteten da jipoituta. Zer esan, bada, demokrazia, gizabanakoaren askatasuna, kutur eta hizkuntza-aniztasuna, munduko hiritartasuna, elkarrekiko errespetua... aldarrikatzen dituzten erdal komunikabide, erakunde, elkarte eta alderdien aurrean? Botereak beti du baloreen edukia, hedapena, erabilera, testuingurua, aplikazio-esparrua erabakitzeko modua. Mendekotasun ideologikotik ere aldentzeko bideak bilatu behar lituzke euskal inteligentsiak.

Joshua Fismanek kontrakoa esango liguke. Gatazkari itzuri behar zaiola, hizkuntza biziberritzeko ahalegina ez dela politizatu behar, sistemaren koordinada ideologikoak baliatu behar direla botereari errespetua eta laguntza eskatzeko. Fishmanek estatubatuar zintzo baten antzera pentsatzen du, lurralderik gabeko yiddish-herriaren azken aztarnei eutsi nahian. Gu, berriz, ez gara estatubatuarrak ez zintzoak, eta agian ez diogu yiddish herriaren ereduari jarraitu nahi. Hobe dugu munduaren benetakako funtzionamenduari erreparatzea, argiro erakusten dutenei adi. Joseba Arregiri kasu. Eusko Jaurlaritzak XXI. menderako hizkuntza-politikaren oinarriak zehazteko prozesuan, txosten baten egilea izan da.¹⁰ Jeltzale ohiak txostenean gogorarazten digu gizartea berez gatazkatsua dela, eta euskal hiztun-herriaren arazoa hortxe dagoela. Hizkuntza-arazoek dimentsio politikoa nabarmena dute. Hizkuntza-gatazkan talka egiten dute batzuen eta besteen interesak, herritar guztiek ezin dituzte eskubide

Eguneroko bizitzako euskararen erreperitorioak (lexikoa, espresioak, fraseologia, gramatika...) pobretzen jarraitzen du. Gaztelaniaren eta frantsesaren presentzia orain urte batzuk baino askoz handiagoa da; hizkuntzok gehiago sartzen dira lagun, bizilagunen eta senideen arteko harremanetan, baita etxean bertan ere.

Euskal hiztun-herriaren arazoak, ekonomikoa, politikoa eta kulturala denez, konponbide integrala behar du, esparru ekonomikoan, politikoan eta kulturalan.

Gatazka politikoa, ekonomikoa, linguistikoa eta kulturala ekidin nahi dugu. Gaixo gaude, makal, etsita eta zapuztuta, eta dekadentzia bizitik, zahartzarotik, bakearekin egiten dugu amets.

berak izan, edo maila berekoak; batzuen interesak eta eskubideak besteen interesen kontra daude, eta batzuk besteen mendekoak dira. Labur esanda: ahal duenak ahal du eta ezin duenak ezin du. Euskal hiztun-herriaren arazoaren alderdi nagusia, erabakigarriena, botere-arazoa da. Ez gara Arkadian bizi, ahaztu diskurtso metafisikoak eta ogi gogorrari hortzak zorrotz.

Nonbaitetik hasi behar-eta, nire ekarpena egin nahi dut, inteligentsiarentzat azter edo eztabaidagai batzuk aurreratuz, apaltasunez. Ez dira ideia umoak, kezak eta zalantzak baizik. Batzuk harrigarriak izan litezke; aurreiritzirik gabe, askatasunez hurbildu behar dugu gaietara, mendekotasunari jaregin eta bide berriak aurkitzeko. Aurrean dugun lantegia ez da makala, eta baliteke kapitalismoa iraultzetik haratago joatea, agian, harik eta zibilizazioaren oinarriak ere berrikusi arte: naturaren eta gizakiaren arteko harremanak, aurrerapenaren kontzeptua, denbora eta espazioarenak, bizitza eta heriotza...

5.1. Arazo soziopolitikoa

Euskal hiztun-herriak ez du berea den adierazpide politikorik. Alderdi nazionalistak edo abertzaleak ez dira, berez, euskaldunen alderdirik, politikan ari diren euskaldun gehienak horietan biltzen badira ere.¹¹ Eta adierazpide hori behar du hiztun-herriak trinkotze-prozesua bideratzeko. Ziur aski prozesu luze samar bat burutu beharko du euskal herriak bere adierazpide politikoa eskueran izan arte, baina perspektiba hori ez litzateke albo batean utzi behar. Agian, eredurik egokiena Flandeskoa liteke: euskal alderdi-eremu oso bat izatea, eta aukera bakarra, alegia, euskaldunen artean ez dago tokirik erdal alderdientzat. Guk, ordea, ez dugu eredu horrek nahitaez eskatzen duen lurralde-jabetzarik. Beste aukera teoriko bi datozkit burua: bata, oraingo alderdiren bat —edo bi— *euskal alderdi* bihurtzea, horretarako barne-funtzionamendua eta agerpen publikoak ia erabat euskaldunduta; bestea, euskal hiztun-herriaren alderdi bat sortzea.

Lehenengo aukera zail da gertatzen, ez ezinezkoa: helmuga bat izan daiteke. Oraingo alderdiren batek bere barruko nahiz kanpoko bezero-mota aldatu behar luke eta, noski, egitura ideologikoa ere bai, lerro bati guztizko nagusiagoa emanda. Euskaldun askok alderdi horren alde egin behar lukete, beste osagai ideologiko batzuk bigarren mailan utzita. Bigarren aukerari bagagozkio, badirudi horretatik ere urrun samar gaudela. Nolanahi ere, euskaldunak beren adierazpide politikoa izateko bezain trinkotuta baleude, nire irudiko, askoz eragin handiagoa izango lukete gizartearen. Errazago babestuko lituzkete beren eskubideak eta interesak, nahiz eta, agian, hautesleen ehunekoa apala izan, demagun, ehuneko bost. Zer esanik ez ehuneko 10 edo 15 lortuz gero. Hipotesi hutsa da, noski, baina gizartearen aldatzeko ez da ezinbestekoa gobernatzea, irauli nahiz izanez gero behinik behin.

5.2. Arazo ideologikoa

Lehenago esan dut iruditzen zaidala euskal intelligentsiari diskurtso ideologiko koherente eta, hein batean, beregaina, eragingarria falta zaiola, euskalgintzak, diskurtso eta estrategia egokirik ez duelarik, mendekotasun ideologiko handia erakusten duela. Balio nagusien aurka aurrez aurre eta bete-betean jartzerik ez badago ere, euskalgintzak behar beste kemen, ausardia eta erabakimen eduki behar luke Ilustraziotik datozen balore nagusiak berraztertze eta iraultze, baita haien gorpuzte modernoagoak ere (*liberté, égalité, fraternité*), giza eskubideak barne.

XVII-XVIII. mendeetatik hasita, arian-arian gizartearen sistema ideologikoa hezurramitu dituen baloreek muinean xede eta ondorio jakin bat izan dute: erkidegoak deseginez, gizabanako absolutu bihurtu eta, horrela, gizarte burgesa eratzea. Balore horien bidez burgesiaren mundua eratuz joan da, sostengua eman baitiote kapitalaren etengabeko metatzeak behar duen esparru ideologikoari. Ildo horretatik, “herria” kontzeptuari “hiritar” kontrajarri zaio, lehenengoaren azpian komunitatea baitaigo historiaren subjektu gisa; bigarrenaren azpian, berriz, gizabanakoa da eskubideen hartzailea. Orobat gertatzen da giza eskubideekin. Muinean, gizabanakoa dute ardatz: jabego pribatuaren eskubidea, merkatu libre. Beste aldarrikapen guztiak funts hori babestera izan dira deituak. Beraz, ororen gainetik merkatu-askatasunaren subjektua eztabaidaezin bihurtu nahi izan dute, bai eta arrakastaz lortu ere. Gaur egun ezker ideologikoa ere ez da ausartzen merkatuko ekonomia eta merkatarien askatasuna argiro arbuiatzen.

Ez pentsatu nazioaren kontzeptu burgesak ideologia hegemonikoaren barne-kontraesanik erakusten duenik. Goi klaseek bere merkatua zedarritu eta babestu behar izan dutenean estatu-nazioa eraiki dute, hiritar libreen multzoa-edo, legeen aurrean eskubide berak dituztenak. Diskriminaziorik ez. Hiritar guztiak berdinak omen direnez, aldi berean ukatu behar izan dute nazio-estatuak izaera etnikoa duenik, baina bada-kigu baduela, hiritarrak guztiak ez direla hiztun- eta kutur herri berekoak. Beste gauza askotan ere ez dira berdinak, jakina. Burgesiak historian aurkitutako lehengaiez blindatu behar izan du bere merkatua, eta historian herriak aurkitu ditu. Orain, burgesia postmodernoak, neoliberalak, munduko merkatu global bat eraiki nahi duenean, merkatu-estatuak eraikitze erabili dituen nazioak funtziorik gabe geratzen hasi dira, oztopo bihurtzeko bidean. Beraz, beti ere gizabanakoa ardatz, oraingo diskurtsoak kultur eta hizkuntza aniztasuna ekarri ditu ideologia eta kulturara. Arrakastaz berriro ere, mundu guztiak, ezker eta eskuin izan, abertzale nahiz jakobino, aniztasunaren alde. Aniztasuna egon badago, gero eta gehiago, merkatu globalaren eratzeko prozesuaren ondorioa eta eragilea izanik, jakina, denon lankidetzarekin, betiko legez, hemen ez baitaigo bihotz eta pentsamendu oneko ez denik.

Euskal hiztun-herriak ez du berea den adierazpide politikorik.

Beste aukera teoriko bi datozkit burua: bata, oraingo alderdiren bat –edo bi– euskal alderdi bihurtzea, horretarako barne-funtzionamendua eta agerpen publikoak ia erabat euskaldunduta; bestea, euskal hiztun-herriaren alderdi bat sortzea.

*Iruditzen zaidala euskal
intelligentsiari diskurtso
ideologiko koherente eta,
hein batean, beregaina,
eragingarria falta zaiola,
euskalgintzak, diskurtso
eta estrategia egokirik ez
duelarik, mendekotasun
ideologiko handia
erakusten duela.*

Euskaldunok ondo dakigu etnariak gabeko hiritar hutsez osatutako nazio-estatu amarru bat dela; orobat, ez da iruzur txikiagoa munduan dabilzan interesek edo hartzen diren erabakiek gizabanakoa dutenik subjektu. Foro globaletan, Europan, Espainian edo Euskal Herrian erabakiak taldeek hartzen dituzte, eta talde batzuen interesak lehenesten. Arazoak sozialak dira, baina sortu ondoren, eragileek erantzukizuna eskatzeko ordua heldu denean, gizabanakoaren lepoetan uzten dute zama. Arazoak, ekologikoak, linguistikoak..., gizabanakoak konpondu behar ditu. Amarru horren bidez aurkaritzari legitimitatea kendu nahi zaio, desmobilizatu. Estrategia hori orokorra da, diskurtso hegemonikoaren xedea komunitateak deslegitimatatu eta suntsitzea denez.

Diskurtso burges eta neoburgesaren estrategiak badu beste amarru bat balore *gozoen* atzean. Behin eta berriz irakatsi digute Ilustraziotik datorren gizabanakoaren aldeko liberalismoak xede humanitarioa izan duela, pertsonak komunitatearen zapalkuntzatik askatu beharra baitzegoen hobeto bizi eta duinak izateko. Asmoak eta ekintzak bestelakoak direla aski frogatuta dago ordea. Ilustraziotik datorren diskurtsoak eragingarritasun produktiboa bilatzen du, kapitala metatzeko baldintza bikainak sortzea. Hori da arrazoiaren eginkizuna. Herritarrek arrazionalizatuz etekin handia atera nahi die, ekoizpen-tresna huts bihurtu. Horretarako ere ezinbestekoa da herritarra hiritar bihurtzea, isolatzea; komunitatetik bereizi behar, hirira eraman eta fabriketan makinaren artean indar-ekoizle huts bihurtzeko. Gero ikusiko zuten, gainera, hiritarra bi bider dela diru-sortzailea, kontsumitu behar duenez. Beraz, ekoizleari nolabaiteko *askatsuna* eman behar zitzaion merkatua dinamizatzen.

Herritarra hiritar ekoizle aparta bihurtu zedin izugarritzko errepresioa erabili zuten erakundeek. Komunitatetik, herritik ateratzeaz gainera, diziplina oso gogor baten azpian jarri behar izan zuten: bizitza erlojuaren menpean jarri, toki itxi batzuetan egun osoa eman, ezezagunen mendean lan egin, baldintza ezin guztiz gogorretan, ezezagunen ondoan, zatikatu-tako lan batean, proletarizazioa... Michel Foucault filosofoak azterketa sakona utzi digu arrazionalismo burgesak herritarrek disziplinatzen erabilitako metodoen gainean.¹² Orduan sortu ziren itxitura guztiak, produktiboak ez zirenak, oztopoak, gizarte eta kaleetatik atera eta giltzapean sartzeko: espetxeratze masiboak, zoroetxeak, ospitaleak..., dena kariatatearen babespean; aleak alfer eta arloteez garbitzeko kanpainak; herritarren jagoletza zorrotza, polizia-kidego egonkorrak... Historiagile burgesen lan espezializatuak arretaz irakurriz gero, herritarren kontra hartutako neurrien berri jaso daiteke. Hain sona handikoak diren XIX. mendeko desamortizazioak batez ere komunitateen kontrako neurriak izan ziren eta herritarren kalterako.¹³

Modernidadearen mitoak. Ez gara berdinarik, ez etnia berekoak, ez eta gizabanakoak ere. Balore burgesak ez daude pertsonak babesteko, herritarrek hiritar ekoizle eta kontsumitzaile egiteko baizik. Gehienez ere indi-

bidualismoaren zurrunbiloan galdurik, gizaki agonikoak gara, larrituak, erreferentziarik gabeak, gure herrian, auzoan eta etxean erbesteratuak, etsiak, neurotikoak, endekatuak, hitz batez: alienatuak.¹⁴ Komunitatea barruan eta kanpoan dugu, eta falta zaigunean, erraietan sentitzen dugu hutsunea, osotasuna galdu dugu eta. Gaur, iraultza, *aurrerapena*, osotasuna berreskuratzea da, komunitatea, barruan eta kanpoan egin ere. Herri-ira itzultzea da gaur aldarri aurrerakoaia, barneko eta kanpoko esteka komunitarioak sendotzea.

Horren guztiaren ondorioz esango nuke aurreiritziak alde batera utzi eta ausardia handiagoz beste diskurtso bat eraiki behar dela euskal intelligentsiaren laguntzarekin, erkidegoari eutsi eta sendotzea ahalbidetuko duten baloreak, euskal hiztun-herriak iraungo badu behintzat. Giza-banakoaren askatasuna eta erkidegoarena beti egongo dira kontrajarrita, askatasuna eta sozialismoa dauden bezala, baina elkarrekin ere egon daitezke, eta daude.¹⁵ Tentsio batzuk sortuko dira, noski, eta orekak aurkitu beharko, baina komunitatearen aldeko orekak hain justu. Konplexurik ez. Intelligentsiak jakin behar du baloreak komunitatearen alde aukeratzeko, bideratzen eta interpretatzen. Hori izan behar luke euskal elite baten eginkizun nagusietatik bat.

5.3. Arazo soziokulturala

Euskal intelligentsiak ez luke menperatzaileen doinu metafisikoaren eraginez hipnosian erori behar. Orientabideren bat behar du euskal hiztun-herriak inguruan duen kultur eta hizkuntza-aniztasuna gestionatzeko. Uko egin behar ote dio euskal herrietan kulturaz eta hizkuntzaz hegemonikoa izateari, bizitza soziala hiztun-herria bera ardatz izanik antolatzeari? Lurralderik gabeko aniztasun berdintzaile hori boterearen estrategia hutsa da, haren aldarria. Ikusi bestela gaur egun erakunde eta kontsumo-gaien propagandatik erruz heltzen zaizkigun mezuak, ofizialki antolatzen diren egunak, jaiak, topaketak, kultur trukeak... Zer esan nahi du “integrazio” hitzak? Zein oreka nahi dugu talde desberdinen artean? Ez da ordua zehazten hasteko euskal hiztun-herriaren hegemonia sozialerako beharrezkoak diren espazio sozialak eta fisikoak, non, nola eta zertan izan behar diren?

Bestalde, nire ustez, euskal kultura tradizioaletik heldu eta oraindik bizirik dauden errituak, jaialdiak, jarduera, osagai material guztiak bultzatzen jarraitu behar da. Horiek izan behar dira kulturgintzaren ardatz. Bizimodu postmodernotik datorrenari, berriz, ez diezazkiogun ateak zabal-zabal utzi, modernoak izan nahian. Ahaleginak egin ditzagun, ahal dugun neurrian, geure modernitatea eraikitzen, konplexurik gabe, moderno globalek “kaxero” deitzen badigute ere. Kultura globalizatua berez sartuko da, hibridazioa gertatzen ari da geuk lagundu gabe. Kultur garbizaletasunak, ostera, muga bat izan behar du, garbizalekeriak ez baitu ezer konpontzen, baina gehiago hondatu dezake. Kultur gai bat eus-

Esango nuke aurreiritziak alde batera utzi eta ausardia handiagoz beste diskurtso bat eraiki behar dela euskal intelligentsiaren laguntzarekin, erkidegoari eutsi eta sendotzea ahalbidetuko duten baloreak, euskal hiztun-herriak iraungo badu behintzat.

Intelligentsiak jakin behar du baloreak komunitatearen alde aukeratzeko, bideratzen eta interpretatzen.

Bizimodu postmodernotik datorrenari, berriz, ez diezazkiogun ateak zabal-zabal utzi, modernoak izan nahian. Ahaleginak egin ditzagun, ahal dugun neurrian, geure modernitatea eraikitzen, konplexurik gabe, moderno globalek "kaxero" deitzen badigute ere.

kaldunek, gehien-gehienek, onartu eta integratu badute, integrazio horri men egin beharko zaio: euskaldunik gabe ez dago hiztun-herririk.

Azkenik, aipatu nahi nuke intelligentziaren beste eginkizun garrantzitsu bat mito berriak sortzea dela, alegia, euskaldunen kohesioa bermatuko duten narrazio kolektiboak. Gizakiok mitoek, narrazio komunek biltzen gaituzte, ez arrazoiak ez ideia zoragarriek. Gizakia, abere kultuduna denez, animalia mitoduna da, narrazio kolektiboak partekatuz sortzen baitira elkarrengana biltzen gaituzten zentzua, emozio, sentipenak. Narrazioak partekatuz sozializatzen dugu geure burua, erkide bihurtzen gara. Narrazio partekatuek ematen digute identitatea.

Mitoak garaiz kanpo daudenean, zaharrituta, zentzurik gabeko narrazio huts bihurtzen dira, ipuin. Orduan diogu "mitoak" direla eta errekarra bota behar direla. Aitzitik, indarrean daudenean, egia eztabaidaezinak dira: aurrerapena, askatasuna, estatu demokratikoa obeditu beharrekoa... Euskal mito zahar batzuk joko kanpo geratzen ari dira nonbait. Baina mito modernoek, indartsu badaude ere, gehiegizko arrakastagatik hasi dira hiltzen: funtzionalitatea galtzeko bidean daude, gero eta gaitasun eskasagoa dute hiritarren kohesio soziala bermatzeko. Horregatik, kontsumismoaren, zorren eta jazarpen politiko-polizialaren eginkizuna handituz doa. Mito modernoak, indibidualismoa muturrera eramanda, gizaki narzisistak sortzen ari dira, hots, lortu behar luketenaren kontrako. Aurkakoen zoritxarra aukera bat da euskal intelligentziarentzat. Euskal mitoak kohesioa lortzen eragingarriagoak izan daitezke. Esango nuke euskaldunak harro, inoren aurrean seguru, talde-kide sentiarazten zuten mito batzuk ipuin bihurtzen ari direla. Europako herririk zaharrena? Inoiz menderatua izan ez dena? Indoeuroparren aurrekoa? Naturala? Zintzoa? Narrazio kolektibo horiek krisian ez badaude, hainbat hobeto, baina ipuin bihurtzen hasi badira, beste narrazio batzuk behar genituzke ordezkatzeko. Beste eginkizun bat intelligentziarentzat. ■

ERREFERENTZIAK

- ALLENDE, José (2008-11-14): "Lurralde eredua eta AHT", *Berria*.
- AZKARRAGA ETXAGIBEL, Joseba: *Berandu baino lehen. Erretratuak XXI. Mendari*. Alberdania, Irun, 2009.
- BOURHIS, Richard Y., LANDRY, Rodrigue: "Hizkuntza-gutxiengoaren talde-bizindarra, kultura-autonomia eta ongizatea", *Bat*, 2008, 67. zk, 151-192 orr.
- Donostia-Baiona eurohiria*, *Bat*, 2003, 47. zk.
- FISHMAN, Joshua: "Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika", *Jakin*, 1988, 48. zk, 5-21 orr.
- FISHMAN, Joshua: *Reversing Language Shift, Reversing language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*, Clevedon, Multilingual Matters, 1991.

- FISHMAN, Joshua : “Elkarrizketa Joshua Fishmanekin. Soziolinguistika ez da nik espero nuen moduan garatu”, *Bat*, 1999, 32. zk.
- FISHMAN, Joshua (2001): “El nuevo orden lingüístico”, *Internacional Journal of the Sociology of Language* www.degruyter.de/journals/ijsl/index.html
- LINCH, John: *El siglo de las reformas: La Ilustración*, El Pais, Madrid, 2007.
- MONEY, Miguel, *Lectura de Foucault*, Taurus, Madrid, 1986.
- MORENO FERNÁNDEZ, Francisco (), *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*, Ariel, Bartzelona, 1998.
- ODRIOZOLA, Joxe Manuel: *Abertzaleak eta euskara edo nazio euskaldunaren gainbehera*, Elkar, Donostia, 2008.
- RUSSELL, Bertrand: *Historia de la Filosofía occidental*, RBA editores, 2004.
- URDANGARIN LASA, Xabier: “Hizkuntzaren ekologia. Hausnarraldi labur eta bi adibide hiria hizpide hartuta”, *Euskara mintzatuaren erronkak*, EHU-UPV, Donostia, 1998.
- ZENBAIT EGILE: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*, EHU-UPV-Unesco Etxea, Bilbao, 2005.
- ZENBAIT EGILE: *Las razones del no al TAV, Txalaparta, Tafalla*, 2009.
- ZALBIDE Mikel (2004-06-08): “Joshua A. Fishman-en RSL edo HINBE”, *Erabili.com*.
- ZALBIDE Mikel (2008-07-09): “HP21: Oinarrizko txostena irakurri ondoko zenbait ohar”, *Erabili.com*.

OHARRAK

1. Hizkuntzen bizindar etnolinguistikoaren faktore erabakiak Kanadako soziolinguistika-eskolak sakon landu ditu (BOURHIS, Richard Y., LANDRY, Rodrigue, 2008).
2. Joseba Azkarraga Etxagibelek dioenez (2009, 60 orr.), “Neoliberalismoaren funtsa dario aipaturiko gobernu logikari: arazo publikoak arazo pribatu bihurtzen dira. Politika neoliberalaren funtsa dario euskal politika instituzionalari: eszenatoki globalean, garapen eredu jakin batek sortutiko arrisku globalen aurrean, fokua norbanakoaren gainean jarri da, ez da ia beste ezer argitzen. Subjektuak gobernatzeko modu (neo)liberala da hori. Norbanakoak euren bizitzen gestio arduratsura animatzen ditu, eta arazo globalen zama norbere kargu hartzera.”
3. Ez pentsa euskararekin bakarrik gertatzen denik. Gogoratu bestela nola iaz Eusko Jaurlaritzako Lehiakortasun-epaimahaia zigortu nahi izan zituen sindikatuak negoziazioetan denden ordutegiak liberalizatzearen kontra jarduteagatik: merkataritzaren kontrakoa, antza denez. Eta ildo beretik dator, Joseba Azkarraga Etxagibelek dioenez (2009, 44. orr.), gaur egun enpresek langileei enpresarekiko guztizko identifikazioa eskatzea (enpresaren misioa, bisioa, helburuak, partaidetza, hobekuntza-jarduera...), haren eskubide sozialak, talde-mailakoak, desregulazioaren bidez ahalik eta gehien murriztu nahi direnean.
4. Gai horri buruzko bibliografia ugari dago. Oraintsuko argitalpen bat aipatzeagatik, UNESCOren esparruan egindako txostena kontsulta daiteke: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena* (Zenbait autore, 2005)
5. “Donostia-Baiona eurohiriak” euskara berreskuratzearen aldeko mugimenduaren hedapen-komunikabideetan ere izan zuen lekua, orain urte batzuk (Bat, 2003). Irakurri horren gaineko agintariek nahiz euren alderdiek esandakoak, eta ikusiko duzu amets horretan euskarak ez du lekurik. Normalean aipatu ere ez.

Euskal mito zahar batzuk jokoz kanpo geratzen ari dira nonbait. Baina mito modernoek, indartsu badaude ere, gehiegizko arrakastagatik hasi dira hiltzen: funtzionalitatea galtzeko bidean daude, gero eta gaitasun eskasagoa dute hiritarren kohesio soziala bermatzeko.

Euskal mitoak kohesioa lortzen eragingarriagoak izan daitezke. Esango nuke euskaldunak harro, inoren aurrean seguru, talde-kide sentiarazten zuten mito batzuk ipuin bihurtzen ari direla. Europako herririk zaharrena? Inoiz menderatua izan ez dena? Indoeuroparren aurrekoa? Naturala? Zintzoa? Narrazio kolektibo horiek krisian ez badaude, hainbat hobeto, baina ipuin bihurtzen hasi badira, beste narrazio batzuk behar genituzke ordezkatzeko. Beste eginkizun bat intelligentziarentzat.

6. Bestalde, inork ez dezala bere burua engainatu pentsatuz AHT gaiak garraiatzeko tresna bat izango dela, eta are gutxiago sasi-tren horrek garraibide kutsagarriagoak ordeztuko duenik, zeren eta, batetik, AHT ez da inoiz pentsatu —ez baita egokia— gaiak garraiatzeko, eta bestetik, azpiegitura handi batek ere ez baitu beste bat ordeztzen. Kapitalismoaren barne-logika beti gehitzea da, gero eta gehiago, etengabeko metaketa behar duenez. Logika hori sakon barneratuta daukagu herritarrok. Horregatik, esanak esan, kapitalismoa, etengabeko hazkunde ekonomikoa —eta demografikoa— ez da jasangarria, ez naturarentzat ez euskararentzat. Gai honetaz interesa izanez gero, jo daiteke *Las razones del no al TAV* (2009) liburura.

7. “Ondorio nagusi gisa, nabarmendu behar da hizkuntza kultura-sistema komplexu bateko atal bat dela, eta harreman estua duela gizarte-antolaketarekin, gizarte-harreman funtzionalekin, eta belaunez belau sozializazio- eta kulturizazio-prozesuen bidez transmititzen diren balioekin, sinesmenekin, portaera-arauekin eta ezagutzarekin”. (MORENO, 1998, 201).

8. Ahalegin handienak eguneroko bizitzako formek eta edukiek jarraipena izan dezaten egin behar dira, komunitateko bizitzari eusten, euskal herriek partaidetza handia eta elkartze-dinamika indartsua dutelako. Dena den, gainerako kultura-adierazpenak ere garrantzitsuak dira, sozializatze balio duten neurrian, balio kolektiboek eusten dielako eta balio horiek eguneratzen eta sortzen dituztelako, eta komunitatearen barruko integrazio sinbolikoa errazten dutelako.

9. “Transmisio partziala dugu, ez bete, egungo familia euskaldun askotan nagusi. (...) Besterik nahiago bage-nu ere askok, ezin hain borobil esan dezakegu EAEn dagoeneko eten egin denik belaunez belaueneko familia-transmisioan gertatzen ari den etendura. Odol-galtzeak aurrera dirau, hainbatean: hala dio euskaldun askoren eguneroko esperientzia pertsonalak; halatsu dio beste zenbait jakitun-iturrik ere.” (Zalbide, 2008).

10. Erabili.com web-orrian argitaratu zen, XXI.mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak zehatzeko txostenari adituek eta eragileek egindako ekarpenen sailean.

11. Eman begiradaxo bat Joxe Manuel Odriozolaren *Abertzaleak eta euskara edo nazio euskaldunaren gainbehera* liburuari (2008)

12. Gai honen gainean, Foucault-en liburuz gainera, besteak beste, Miguel Moreyren liburua (1986) eta, adibidez, El Paisek egunkariak argitaratutako *El siglo de las reformas. La Ilustración* (2007).

13. Legeen aurrean ere ez gara berdinarik, lege desberdinak egiten baitira araua hautsi dezakeena zein mailakakoan den ondo begiratuta, eta, noski, berdinar gertatzen da epaiekin. Prentsa askatasunik ez dago, eta ez legoke lantzean behin molestatzen duen egunkariren bat itxiko ez balute ere. Askatasun politikoa ere fikziozkoa da. Sistemak mehatxu serioak antzematen diutenean ondo daki arau, lege eta printzipio guztiak salbuespen egoeran jarri eta neurri bereziak hartzen. Hiritar delinkuenteen atxilotetak sarritan berme batzuekin egiten badira eta horrelakoetan maiz tratu txarrik ez badago, ez da iraultza burgesaren aurreko Erregimen Zaharra baino humanitarioagoa delako, baizik eta bestela jokotuta onura gehiago lotzen delako. Produktiboago denean, hiritar arrisksuen bermeak desgertzen dira eta jipoiak edo tratu txarragoak jaun eta jabe azaldu, eta zer esanik ere arriskua politikoa bada. Kontsumitzeko askatasuna, halako modukoa, zintzoki aitortzen den bakarra.

14. “alienatu”, “enajenatu”, hitz desberdinak daude norberaren oinarritzko batasunaren zatiketa psikiko edo soziala adierazteko. Literaturan larridura hori irudi batez adierazten da: bakardadea.

15. Kontrajarpen hori Bertrand Russellek proposatzen du *Historia de la Filosofía occidental* (2004) liburuaren hasierako kapituluetan.